


“LGTBI+ KOLEKTIBOAREN ESKUBIDEEN  
ALDE LAN EGITEN DUTEN ERDIALDEKO  
AMERIKAKO ERAKUNDEEN DIREKTORIOA”



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Mugen Gainetik garapenerako GKE bat da, eta herriek jasaten dituzten egoera bidegabeen bozgorailu izatea du helburu. Horretarako, pertsonak sistemaren bihotzean kokatu nahi ditu diskriminaziorik ezaren, ahalduzaren eta genero-berdintasunaren printzipioetan oinarrituta, eta, ildo horretan, garapenerako proiektuak eta prozesuak inplementatzen ditu, pertsonen eskubideak bermatuko dituzten politika publikoak eskatzen ditu, eta pertsonen alde egin ordez merkatuak babesten dituzten politikei aurre egiten die.

Gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren bidez, balioetan oinarritutako, elkartasunerako, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako, kulturartekotasunerako, tolerantziarako, bakerako eta giza eskubideen babeserako hezkuntza bultzatzen dugu.

Mugen Gainetik erakundeak 23 urte baino gehiago daramatza Erdialdeko Amerikan giza eskubideen alde lanean, eta gizarte bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzen laguntzen die bertako erakundeei. Testuinguru horretan, LGTBI+ kolektiboarekin lanean hasi ginen duela 8 urte.

Gida hau LGTBI+ kolektiboaren eskubideen alde diharduten erakundeen sare bat sortzeko proiektu batean kokatu behar da.

Horregatik, Erdialdeko Amerikako 4 herrialdetan (El Salvadorren, Guatemalan, Hondurasen eta Nikaraguan) LGTBI+ kolektiboaren eskubideen alde diharduten erakunde aktibo gehienak agertzen dira gidan.

Bertan, erakunde horien helburuen laburpen txiki bat eta erakundeen datuak aurkitu ahal izango dituzu, interesa izanez gero informazio gehiago lortu ahal izan dezazun.

Aurkituko duzun informazioa baliagarria izatea eta, batez ere, ongi baliatzea espero dugu.

Ondo izan.

**Mugen Gainetik**

# ESKUALDE-IKUSPEGIA

**Erdialdeko Amerika infernua da LGBTI kolektiboko pertsonentzat.** Eskualde hori munduan desparekotasun eta indarkeriarik handiena dutenetako bat izateaz gain, zigorgabetasun-mailarik handienak agertzen ditu LGBTI pertsonen giza eskubideen urraketa sistematikoaren aurrean.

Lesbianek, gayek eta trans pertsonak beren sexu-orientazio, genero-identitate edo genero-adierazpenagatik jasaten dituzten gorroto-erasoak eta diskriminazioa kolektibo horren egoeraren ezaugarri bereizgarria da El Salvadorren, Guatemalan, Honduraren eta Nikaraguan. Horren ondorioz, umiliazioak, mehatxuak, jazarpena eta beldurra dira nagusi kolektibo horren eguneroko bizitzan.

Landa-eremuko, talde indigenetako edo afrikar jatorriko lesbiana eta trans pertsona gehienak marjinalizazio eta pobrezian bizi dira, eta are oztupo handiagoak izaten dituzte egunero jasaten duten diskriminazioari eta indarkeriari aurre egiteko.

**Indarrean dauden esparru juridikoek ez dute bermatzen LGBTI pertsonen eskubideen erabilera,** pertsona horiek esplizituki salbuesten dituzte oinarritzko giza eskubideak erabiltzeko aukeraz, edota haien premia espezifikoak kontuan hartzen ez dituen ikuspegi heterosexista batean oinarrituta egiten dituzte legeak.

Erdialdeko Amerikako lau herrialde horietan homosexualitatea zigortuta ez badago ere (Nikaraguan 2008. urteaz geroztik, eta gainerakoetan duela mende bat baino gehiagoz geroztik), eta arau-esparrua formalki berdintasunean oinarrituta egonik ere, ez da aplikatzen LGBTI pertsonen kasuan, eta, beraz, pertsona horiek bizitzeko, oinarritzko zerbitzu kolektiboak jasotzeko, antolatzeko, kaleetan zehar askatasun osoz ibiltzeko, seguru sentitzeko eta gainerako herritarren baldintza berdinetan justiziara jotzeko dituzten eskubideak ez daude bermatuta.

Gainera, ez dago lege espezifikorik ugalketa-osasunean arreta egokia jasotzeko, hezkuntzara jotzean diskriminaziorik ez jasateko edota beren identitate pertsonalarekin bat datorren izen bat edukitzeko dituzten eskubideak aitortzen dituenik. Legeriak, halaber, esplizituki debeketzen du LGBTI komunitateko bikoteak eta familiak legez onartzea.

Horren ondorioz, lesbianek, homosexualak eta trans pertsonak eskola publikoetan bizi dituzten bazterkeria-eta etsaitasun-maila handiak, osasun-erakundeetako langileengandik jasotzen dituzten tratu txarrak, trans emakumeek enplegua lortzeko dituzten zailtasunak eta okerren ordainduta dauden lanak eta sexu-lanak egiteko joera, poliziaren abusuak eta justiziara jotzeko ezintasuna zabalki dokumentatuta daude LGBTI kolektiboaren eguneroko errealtate gisa.

LGBTI pertsonen aurkako **gorroto-eraso eta gorroto-krimenen bolada bat** gertatzen ari da azken hamarkadan herrialde guztietan. Milioi biztanleko eraildako trans pertsonen kopururik handiena duen herrialdea Honduras da, eta bigarrena, berriz, Guatemala. El Salvadorren kasuan, 600 gorroto-krimen inguru egin dira gerra zibila amaitu zenetik orain arte. Nikaraguan, bestalde, elkarriketatutako trans emakumeen % 80k, lesbianen % 50ek eta gizon gayen % 45ek 2010ean adierazi zuten indarkeria jasan zutela sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik edo genero-adierazpenagatik.

LGBTI komunitateak jasandako erailketen eta erasoen % 90 baino gehiago ez dira zigortzen. Gainera, erregistro-sistema desegokiak direla-eta, biktimak ikusezin bihurtuta geratzen dira hildako pertsonen estatistika ofizialetan.

**LGBTI komunitatearen aurkako etsaitasun eta agresibitate handiko giroa** (trans emakumeen aurkako bereziki) trilogia zital baten emaitza da: Estatuko aparatuen eraginkortasunik eza, oso gizarte kontserbadoreak, eta elizak eta komunikabideek behin eta berriz zabaldutako gorroto-mezuak.

Bestalde, Honduraren gizon gayen aurka egiten diren gorroto-krimenen eta El Salvadorren eta Guatemalan trans emakumeen aurka egiten direnen zifra kezagarriak misoginiaren, homo-lesbo-transfobiaren, kaleko sexualari lotutako arriskuen, gaizkile taldeen eta krimen antolatuaren jardunaren emaitza dira, eta horiek guztiak zaildu egiten dute gorroto-deltuen ikerketa eta jazarpena. Halaber, poliziek eta beste segurtasun-indar publiko eta pribatu batzuek LGBTI komunitatearen aurkako errepresioan betetzen duten zeregin garrantzitsua eta atxiloketa arbitrarioetan, torturetan eta erailketetan duten inplikazioa salatu da. Nolanahi ere, segurtasunik ezaren

eta zigorgabetasunaren ondorioz, gora egin dute LGBTI pertsonen barne-desplazamenduek eta behartutako emigrazioak, mehatxuez eta gorroto-indarkeriaz ihes egiteko.

Politika publikoen eremuko lorpen batzuek ia ez dute aplikazio praktikorik izan, lau herrialdeetan nagusi baitira klase politiko konterbadoreak (ohiturei eta sexu-moralari dagokienez, afiliazio politikoa edozein izanik ere). Klase horiek, hauteskundeetan batez ere, ez dute inolako erreparorik emakumeen eta LGBTI pertsonen eskubideen inguruan hartutako konpromisoak alde batera uzteko. Gainera, eliza-hierarkiek (katoliko eta ebanjelikoek) Estatuak erakundeetan eskua sartzen dute, eta, era horretan, sendotu egiten da eskualdeko legeria eta politika publikoen izaera atzerakoia eta eskubideen aurkakoa.

Azken hamarkadan, LGBTI pertsonen eskubideak babesteko Estatuak instantziak sortu dira lau herrialdeetan (sexu-aniztasunaren defentsa-erakundeak, zuzendaritzak edo prokuradoretzak), baina bertako mugimenduek salatu dutenez, eraginkorrak ez diren edo kolektiboarekin batere konprometituta ez dauden pertsonak zuzendu dituzte erakunde horiek orain arte.

Halaber, diskriminazioaren aurkako politikak onartu dira El Salvadorako administrazio publikoan eta Nikaraguako osasun-erakundeetan; Hondurasko Zigor Kodearen artikulua batzuk erreformatu egin dira (ezartzeko “delituaren inguruabar astungarria dela sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik gorrotoz edo arbuioz egitea”); Guatemalako trans pertsonak aukeratzen duten izena jar dezakete nortasun-agirian, eta osasun-arreta integrala jaso dezakete (sexu-aldaketa egiteko terapia hormonaleko zerbitzuak barne); eta Guatemalako LGBTI pertsonak eraso bat salatzen dutenean, kolektiboko kide direla jasoaraz dezakete erregistroan, nahi izanez gero.

Lorpen eta aurrerapen horiek, nahikoak ez izan arren eta formalak izan arren (errealak baino neurri handiagoan), LGBTI komunitatearentzat garrantzitsuak dira, urte askotan egindako “inurrien” antolamendu-lanaren, alderdi politikoen eta Estatuak erakundeen aurrean egindako intzidentzia-jarduera ugarien, salatzeak eta erreibindikazioak zabaltzeko kanpaina iraunkorren eta mobilizazio publikoetan (kontuan hartuta mobilizazio

horietan aktibistek eta LGBTI pertsonen eskubideen defendatzaileek segurtasuna eta bizitza arriskuan jartzen dutela) izandako parte-hartzearen emaitza baitira.

**Azken hamarkadan, LGBTI mugimenduak askotarikoagoak dira, eta, zenbait kasutan, egituratuago daude.** 90eko hamarkadan GIB/HIESaren epidemiari aurre egiteko sortu ziren gayen erakunde historikoak (horietako askok esparru horretan jarraitzen dute lanean) lesbiana, gay eta trans pertsonen kolektibo berriekin batera dihardute gaur egun mugimenduan. Kolektibo horiek eskubideen defentsara, gorroto-erasoen eta gorroto-krimenen salaketara, gizartearen sentsibilizaziora eta intzidentzia politikora daude bideratuta nagusiki, homo-lesbo-transfobiaren aurkako jardunaldietako mobilizazio masiboa eta sexu-aniztasuna harrotasunez ospatzeko egunak ahaztu gabe.

Baliabide urriak izanik ere, askotariko LGBTI kolektiboek, erakunde feministekin eta giza eskubideen aldeko erakundeekin lankidetzan, kolektibo osoak jasaten dituen eskubide-uraketak ikusaraztea, LGBTI pertsonen bizibaldintzak hobetzeko proposamenak egitea, eskubideen inguruko prestakuntzan eta antolamendu-ahalmenen sendotzean aurrera egitea eta LGBTI kolektibo osoaren eta heterosexismoa iraultzen duten eta aniztasunaren errekonozimendua defendatzen duten pertsona guztien eskubideen aldeko borroka bultzatzeko beste gizarte-mugimendu batzuekin aliantzak egitea lortu dute.

# LGBTI ERAKUNDEAK EL SALVADORREN

## ERAKUNDE LESBIKOAK

### **ALES LAVINIA - Heidy Lavinia Lesbianen Elkarte**

Elvira Hernández . 503-73065115

Barrio San Miguelito, Ciberenlace 1010, Avda. España. San Salvador

aleslavinia.sv@gmail.com

elviraherdez88@gmail.com

www.facebook.com/aleslavinia.elsalvador

Elkartea 2013an eratu zen, emakume lesbianen eskubideen alde borrokatzeko helburuarekin. Erakunde feminista dela dio elkarteak berak.

Lesbiana taldeekin lan egiten du herrialdeko 4 departamendutan, eta autoestimuari, norberaren onarpenari eta giza eskubideen inguruko prestakuntzari buruzko jardunaldiak egiten ditu.

Beste kolektibo lesbiko batzuekin batera, mugimendu lesbiko-feminista bat osatzeko ahaleginetan ari da, eta Las Dignas taldearen laguntza jasotzen du.

“LGBTI erakundeek ez dituzte lesbianak kontuan hartzen. Gure izenean hitz egiten dute, baina martxetan atzera bidaltzen gaituzte. Ez da erraza lesbiana izatea El Salvadorren, beti armairuan, lanean oso jarrera maskulinoak agertzeagatik diskriminatua izateko edo kanporatzeko beldurrez”.

### **LAS HIJAS DE SAFO Kolektiboa**

Yanileth Mejía . 503-22849550

Colonia Satélite, Avda. Bernal casa 16 S. San Salvador

ypcasangre@hotmail.com

www.facebook.com/public/Las-Hijas-De-Safo-Colectiva

Las Dignas erakundearen Eztabaida Feministako Eskolan eta emakume gazteen topaketa batean parte hartu zuten lesbiana batzuek 2014an sortutako kolektibo lesbiko feminista bat da.

Gazte lesbianak feminismoan prestatzeko premia azpimarratzen dute.

Beste kolektibo lesbiko batzuekin batera, mugimendu lesbiko-feminista bat sortu nahi dute, Las Dignas erakundearen babesarekin.



### **ESMULES - Aniztasunaren aldeko Emakume Lesbianen Gunea**

Andrea Ayala . 503-25606101

esmules.elsalvador@gmail.com

Colonia San Benito, Avenida Las Acacias casa 124. San Salvador

elblogdeesmules.wordpress.com

2009. urtean sortutako erakundea da. Lesbianek zuzentzen dute, eta LGBTI pertsonen giza eskubideen eta lidergoaren alde lan egiten du.

Gobernuaren erakundeetan eragiten saiatzen da, LGBTI pertsonen aldeko politika publikoak bultzatzen. 2015. urtean, erakundearen bulegoak arpilatu egin zituzten.

Politika publikoak aldatzeko tresna gisa balia daitezkeen 6 azterlan egin dituzte, eta Polizia Nazional Zibileko milaka agente eta justiziaren sektoreko 178 funtzionario sentsibilizatu dituzte.

“Oztoporik handiena funtsak lortzeko garaian agertzen zaigu. Izan ere, lesbianek zuzentzen duten erakunde bat garez gero, gainerako LGTBI

pertsonen alde lan egiten ez dugula pentsatzen da, baina hori gezurra da. Horrek kalte egin digu, GIBari aurre egiteko funtsak esleitzen direnean –eta horretarako lortzen dituzte baliabide gehienak LGTBI erakundeek–, emakume lesbianak inoiz ez dira kontuan hartzen”.

## TRANS ERAKUNDEAK

### HT503 - Generación Hombres Trans

Vi Rivera / Bryan Rodríguez /  
Michael Cañas

503-25300405 . 25645029

Colonia Flor Blanca, 12 Calle Poniente,  
casa 2413. San Salvador.

generacionht503@gmail.com

<http://ht503.blogspot.ca>

Trans gizonen erakunde bakarra da El Salvadorren.

2015. urtean sortu zen, eta 50 trans gizon inguru biltzen ditu. Giza eskubideei, norberaren zaintzari eta maskulinitate berriei buruzko tailerrak eta kirol-jarduerak egiten dituzte.

2015. urtean Guatemalan egindako eskualde-topaketaren ondoren sortutako Trans Gizonen Erdialdeko Amerikako Sarean (RECATH) parte hartzen dute.

2016. urtean, HT503ko aktibista Brandon Alvaradok atentatu bat jasan zuen. Hainbat tiro jaso zituen.

2015. urtean, HT503ko zuzendari eta San Salvadorreko Udal Agenteen Kidegoko kide **Alex Peña** jo zuten bi polizia, Ekainaren 28 Martxatik itzultzean. Lehen aldiz, kasua ikertu egin zen, eta 4 urteko espetxe-zigorra ezarri zieten bi poliziei.

### COMCAVIS TRANS

#### Comunicando y Capacitando a Mujeres Trans Elkarte

Karla Avelar . 503-25300405 . 25645029

Colonia Flor Blanca, 12 Calle Poniente,  
casa 2413. San Salvador.

kavelar@comcavistrans.org.sv

comcavis@gmail.com

<http://comcavis.org.sv/>

Izenean “trans” hitza duten erakundeen artean legezatu zen lehena da; 2011. urtean legezatu zen.

2008. urtean sortu zen trans emakumeen giza eskubideak defendatzeko, eta, besteak beste, preso dauden trans emakumeak gizarteratzeko lan egiten du, trans emakume migratzaileei laguntzen die, estigmari, diskriminazioari eta genero-identitateari buruzko hezkuntza-proiektuak egiten ditu, eta sexu-osasunari, GIBari eta erretrobirusen kontrako terapiari lotutako aholkularitza eta zerbitzuak eskaintzen ditu.

Intzidentzia politikoko eta ikerketako jarduerak sustatzen ditu, eta trans pertsonen giza eskubideen urraketaren aurkako salaketak bultzatzen eta babesten ditu San Salvadorren eta herrialdeko beste 7 departamendutan.

Transen despatologizazioari buruzko 3 foro egin ditu, eta salaketa bat aurkeztu du Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrean (CIDH), transfobiaren ondoriozko gorroto-krimenak direla-eta.

Kanadak El Salvadorren duen enbaxadaren finantza-babesari esker, “Trans pertsonen justizia, izen eta identitaterako eskubidea” izeneko kanpaina bat egin du 2017. urtean.

Karla Avelar El Salvadorren zein Latinoamerika osoan ospe handia duen trans aktibista bat da:



**Giza Garapena Bultzatzeko Elkarte Solidarioa - ASPIDH ARCOIRIS Trans**

Raiza Hernández . 503-22005469  
 Urbanización Santa Adela,  
 19 Calle Poniente, Pasaje 3, casa 26.  
 San Salvador  
 raiza.arcoiris@gmail.com  
 aspidh.arcoiris.trans@gmail.com

**ASTRANS LGBTI**

Sandra Álvarez  
 503- 22215682  
 Clínica: 503-72046896  
 sanelibu28.sb@gmail.com  
 mdsdhtrans.blogspot.com  
 www.facebook.com/astranslgbti/

-Trans pertsonak eta gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoak (GSG) ordezkatzan ditu GIB/HIESari aurre egiteko Herrialdeko Koordinazio Mekanismoan (MCP-ES).

- Erdialdeko Amerikako Sexu Aniztasunaren Sareko (DIVERSA SAREA) presidenteordea da, eta ordezeko kidea ILGA-LAC erakundeko kontseiluan.

- ONU Emakumeak erakundeko Gizarte Zibilaren Aholku Taldean parte hartzen du.

Edonola ere, ezin izan zen joan CIDHaren aurrean egindako audientziara 2017ko martxoan. Izan ere, Amerikako Estatu Batuek El Salvadorren duten enbaxadak ukatu egin zion Amerikako Estatu Batuetan sartzeko bida.

Transen eta GSGen eskubideak defendatzen dituen elkarte bat da.

Sentsibilizazioa, hezkuntza, antolamendua eta intzidentzia lantzen ditu giza eskubideen eremuan, GIBaren, sexu-tranmisiozko infekzioen (STI) eta sexu-osasunaren inguruko prebentzio- eta arreta-prozesuak barnean hartuta.

Gaur egun, El Salvador ordezkatzan du Trans Pertsonen Latinoamerikako eta Karibeko Sarean (REDLACTRANS).

2010. urtean identitateari buruzko legea erreformatzeko proposamena aurkeztu zutenean, honako hau adierazi zuten: “Espero dugu alderdi politiko guztiek eta Gizarteratze Idazkaritzak identitateari buruzko legearen erreforma babestea, transgeneroek beren giza eskubideez bete-betean gozatu ahal izan dezaten, beren generoaren arabera aukeratutako identitatearekin”.

Oraingoz, emakume diputatu bakar batek babestu du Genero Identitateari buruzko Legearen inguruko proposamena.

(Garai batean Transgenero, Transexual eta Trabestien El Salvadorreko Elkartearen izena –Asociación Salvadoreña de Transgéneras, Transexuales y Travestis - ASTRANS / MOVIMIENTO TRANS)

El Salvadorreko eremu baztertueta LGBT populazioaren giza eskubideen inguruko hezkuntzarekin konprometuta dagoen erakundea da.

Trans komunitatearen osasun integrala sustatzen du, eta klinika bat ireki du trans pertsonen sexu-berresleipenaren inguruko aholkularitza emateko.

Trans pertsonen intzidentzia politikoaren, sentsibilizazioaren, trebakuntzaren eta antolamenduaren inguruko prozesuak garatzen ditu, herrialdeko landa-eremuak bereziki kontuan hartuta.

## LGBTI ERAKUNDEAK

### FRATERNIDAD GAY SIN FRONTERAS

Alexia Bukely / Willy Mesa  
503-25641998

Colonia Escalón, 101 Avda. Norte y 7ª Calle  
Poniente, casa 554. San Salvador.  
gaysinfronteras@outlook.com  
<http://gaysinfronteras.weebly.com>

Gazte gay batzuek LGBTI populazioaren giza eskubideak sustatzeko 2000. urtean sortutako erakunde bat da. Azken urteotan, osuera aldatu egin du, eta kide gehienak transak eta trabestiak dira gaur egun (aktibista gayak gutxiengoa dira orain).

Erakundearen lan egiten duten pertsonen % 95 sexu-lanean diharduten trans emakumeak dira, hezitzaile talde osoa eta zuzendaria bezalaxe. Zuzendaritza Batzordea sexu-langileak diren trans emakumeek eta gizon trabestiek osatzen dute nagusiki.

Genero Identitateari buruzko Legearen aldeko intzidentzia politikoa lantzen dute, sexu-langileak diren trans eta gayen diskriminazioaren aurkako kanpainak egiten dituzte, eta sexu-langileak diren transen aurkako gorroto-krimenen jarraipena egiten dute.

Zerbitzuak eta aholkuak eskaintzen dituzte sexu- eta ugalketa-osasunaren eta GIBaren inguruan.

### ALEJANDRIA kolektiboa

Karla Guevara  
Colonia Magaña, 16 Avda. Norte, entre 25 y  
27 calle Oriente, casa 2.  
San Salvador.  
colectivo.alejandria@gmail.com  
colectivoalejandria.blogspot.com

LGBTI pertsonen giza eskubideen defentsan diharduen elkarte bat da. Intzidentzia politikoaren, sentsibilizazioaren eta trebakuntzaren inguruko prozesuak garatzen ditu, LGBTI pertsonen hezkuntza eta lanbide-heziketa jasotzeko aukera hobetzeko eta GIBari eman beharreko erantzun nazionala sendotzeko.

Beste trans erakunde batzuekin batera, Genero Identitateari buruzko Legea sustatzen du.

GIBaren prebentzioan dihardu trans emakumeekin, eta herrialdean LGBTI kolektiboak bilduko dituen sare bat sortzeko lanean ari da.

2015eko maiatzean, kolektibo horretako kide zen **Francela Méndez** izeneko trans emakumea erail zuten.

### ENTRE AMIGOS elkarte

William Ramírez . 503-22068400  
Barrio San Miguelito, 17 Calle Poniente  
casa 142, entre 1ª Avda. Norte y Avda.  
España. San Salvador.  
entreamigosgay@gmail.com  
<http://www.entreamigoslgbti.org>

El Salvadorreko lehen LGBTI erakunde da, 1994an sortua.

LGBTI populazioaren giza eskubideak sustatzen eta defendatzen ditu, eta osasuna, sexu- eta ugalketa-eskubideak eta GIBaren eta STIen prebentzioa (GSGen kasuan) lantzen ditu bereziki.

LGBTI kolektiboaren giza eskubideen defentsa eta sustapenean (intzidentzia politikoa legegintzan, monitorizazioa eta ebaluazioa) eta STI/GIB-Hiesaren prebentzioan lan egiten du. Ildo horretan, portaerak aldatzeko informazioa, heziketa eta komunikazioa, GIBaren borondatezko proba eta aholkuak, ospitaleetara joateko eta/edo bideratzeko laguntza, babes-taldeentzako arreta eta GIBaren prebentzio konbinatuaren metodologia eskaintzen ditu.

Europar Batasunak finantzatutako "Centroamérica Diferente" ("Erdialdeko Amerika desberdina") proiektuan parte hartu zuen.



## LGBT KOLEKTIBOekin LAN EGITEN DUTEN AKTIBISTAK ETA GKE-AK

<p><b>Ana Cisneros</b> merrum@yahoo.com</p>	<p>Aitzindaria da El Salvadorreko lesbianen eskubideen aldeko borrokan, eta Entre Amigos elkartearen sortzailea da.</p> <p>Gaur egun, Giza Eskubideak Defendatzeko Prokuradoretzaren (PDDH) LGBTI Pertsonen Eskubideen Mahai Iraunkorrean eta Lan Ministerioaren LGBTI Mahaian parte hartzen du aktibista independente gisa. Ikus elkarrizketa honako honetan: <a href="https://youtu.be/WubGcFZilqg">https://youtu.be/WubGcFZilqg</a></p>
<p><b>Leslie Xamara Ramírez</b> 503 - 72889091 Colonia El Refugio, Avda. San José, casa 322. San Salvador. lesliexamara@yahoo.com</p>	<p>Alejandría kolektiboaren sortzailea da, eta aktibista independentea, feminista eta trans emakumeen giza eskubideen defendatzailea gaur egun.</p> <p>Trans emakumeen kolektiboak ordezkatzan ditu Osasunaren Foro Nazionalaren Sexu eta Ugalketa Osasunaren Mahaian.</p> <p>Sexu eta Ugalketa Eskubideen aldeko Aliantzan parte hartzen du.</p> <p>Unibertsitate-titulu bat (Erizaintzan) lortu duen lehen trans emakumea, Gizarteratze Idazkaritzako funtzionarioa, sindikalista, giza eskubideen defendatzailea.</p> <p>Halaber, "Trans emakumeen osasun-diagnostiko situazionala" ikerketa aitzindariaren egilea da.</p> <p>"LGBTI populazioaren osasun-arreta integralerako dokumentu teknikoak" (2016) formulatzen lagundu zion Osasun Ministerioari.</p>
<p><b>Nelson Urquilla</b> 503 - 71073749</p>	<p>LGBT populazioaren eskubideen aldeko borrokan aitzindaria, Entre Amigos elkartearen sortzailea eta lehen Harrotasun Martxaren antolatzailea 1997an (armadak 1984ko ekainean sarraskitutako trabestien omenez egin zen martxa hori).</p> <p>Gaur egun, aktibista independentea da, eta proiektio handia dauka LGBTI kolektiboetan.</p>
<p><b>AMATE EL SALVADOR - Sexu eta Genero Aniztasunaren Ikastegia</b> Roberto Zapata 503 - 22252332 / 4032 / 2332 Colonia Escalón, calle Dirección, casa 249. San Salvador. roberto.zapata@amate.org.sv amate.elsalvador@amate.org.sv <a href="http://www.amate.org.sv">http://www.amate.org.sv</a></p>	<p>El Salvadorren LGTBI komunitatearen ahalduntzea babesten duen GKE bat da. Hori lortzeko, memoria historikoa berreskuratzen, aktibistak emozionalki sendatzen eta gizarte zibileko erakundeak sexu- eta genero-aniztasunarekin prestatzen saiatzen da.</p> <p>Herrialdeko lehen LGBTI artxiboa sortu dute. Bertan, LGBTI komunitateak eta/edo komunitate horrentzat landutako irudiak, afixeak, aldarrikapenak, argitalpenak, ahokoz eta idatzizko elkarrizketak, artea eta ikus-entzunezko materialak daude bilduta.</p> <p>Arteterapiako tailerrak egiten dituzte LGBTI aktibisten estresa eta trauma lantzeko eta autoezagutza bultzatzeko.</p>

	<p>Halaber, LGBTI populazioak goi-mailako hezkuntza jasotzeko aukerari eta akademian duten eraginari lotutako proiektuak kudeatzen dituzte.</p>
<p><b>LAS DIGNAS</b></p> <p>Yanileth Mejía</p> <p>503 - 22849550</p> <p>Colonia Satélite, Avda. Bernal casa 16 S. San Salvador.</p> <p>conduccioncolectiva@lasdignas.org.sv</p>	<p>2000. urtetik aurrera talde lesbikoen sorkuntza sustatzen duen eta talde horiei antolamendu-babesa eta prestakuntza feminista ematen dien erakunde feminista.</p> <p>Erakundearen 2010-2015eko Erakunde Planean, emakume lesbien eskubideak ikusarazteko eta erreibindikatzeko lana erantsi zuen.</p> <p>2016. urtean, Eskola Lesbofeminista inauguratu zuen. 25 emakumek hartu zuten parte, eta erreibindikazio lesbikoen agenda bat landu zuten.</p> <p>2017. urtean, foro bat egin zuen Estatuko erakundeekin, eta LGBTI kolektiboen eta El Salvadorreko Estatuko erakundeen arteko Elkarriketa Mahaietan lesbien jasaten duten marjinazioa utzi zuen agerian.</p>
<p><b>ORMUSA - El Salvadorreko Emakumeen Bakearen aldeko Erakunde</b></p> <p>Jeannette Urquilla / Loida Carranza / Marcos Molina</p> <p>503 - 22255007 . 22265829</p> <p>Colonia San José, Avda. A, casa 235. San Salvador.</p> <p>ormusa@ormusa.org</p> <p>comunica@ormusa.org</p> <p>www.facebook.com/ormusa.organización</p>	<p>1985ean sortutako erakunde feminista. Berdintasuna, genero-ekitate eta emakumeen ahalduzko ekonomiko, sozial eta politikoa sustatzeko sortu zen. Intzidentzia politikoa garatzen dute emakumeek justiziara jotzeko aukera eta giza eskubideen ikuspegian oinarritutako tokiko garapena eta garapen nazionala errazteko.</p> <p>Lan-ardatzetako bat sexu- eta ugalketa-eskubideen defentsa da. 2001. urteaz geroztik, Sexu eta Ugalketa Osasunaren aldeko Aliantza parte hartzen du, eta sexu- eta ugalketa-eskubideak sustatzen dituzten gazte-sareak babesten ditu.</p> <p>Duela 8 urtez geroztik, LGBTI kolektiboekin lan egiten du haien antolamendu-ahalmenak sendotzeko, proiektuen kudeaketan trebatzeko eta haien lidergoak areagotzeko.</p> <p>Halaber, erakunde feministen eta LGBTI kolektiboen artean dagoen hesia murriztu nahi du.</p>
<p><b>CoCoSI - HIESaren Kontrako Batzorde Elkarte</b></p> <p>Brenda René Hubbard</p> <p>503 - 77298725</p> <p>Cantón El Zapote, Ciudad Victoria, Cabañas. El Salvador.</p> <p>cocosi.dir@gmail.com</p> <p>http://cocosi.org/</p>	<p>CoCoSI erakunde 1999an sortu eta 2007an legezlatu zen. Cabañasko Departamenduko Victoria udalerriko hainbat komunitatetan bizi diren gazteek zuzentzen dute.</p> <p>Santa Marta komunitatean sortu zen, gazteei GIB/HIESaren inguruko prebentzioa eta hezkuntza helarazteko. Gaur egun, 20 gaztek osatzen dute. GIBarekin bizi diren pertsonen laguntzen die, eta esperientzia handia hartu du genero-indarkeriari eta familia barruko indarkeriari aurre egiteko lanean, sexu- eta ugalketa-osasunaren inguruko prestakuntzan, lidergorako prestakuntzan eta LGBTI populazioaren giza eskubideen defentsan.</p>

## EL SALVADORREKO SEXU-ANIZTASUNERAKO LEGE-LAGUNTZAREN BULEGOA – ALDES

2012an sortutako GKEa. Lege-ahalduntzearen bidez El Salvadorreko LGBTI komunitatearen osasuna, segurtasuna, duintasuna eta giza eskubideak sustatzeko sortu zen.

LGBT komunitatearen giza eskubideen urraketek buruzko ikerketa-proiektuak egiten ditu, giza eskubideen eta LGBT kolektiboen kontrako gorroto-krimenen inguruko sentsibilizazio- eta heziketa-ekitaldiak antolatzen ditu, eta kolektibo horiek giza eskubideen zaintzaz arduratutako erakundeetan salaketak aurkezteko duten ahalmena sendotzen du

Nazioarteko laguntzaileen sare bat dauka, eta haren bitartez nazioarteko komunitateak El Salvadorreko LGBTI komunitateari eskainitako laguntza, babesa eta elkartasuna mobilizatzen du.

Epe ertainean, ALDEsek LGBTI komunitatearentzako doako legezko zerbitzuak eskaintzeko eta eskualde-mailan auzi estrategikoak eramateko asmoa du.

<http://aldeselsalvador.blogspot.com/p/blog-page.html>

## LGBTI ERAKUNDEEN SAREAK

### SEXU-ANIZTASUNAREN ALDEKO ALIANTZA

2009. urtean, sexu bereko pertsonen lotura zibilak egiteko eta adoptatzeko aukera itxi nahi zuten konstituzio-erreformak berresteko eztabaidaren garaian sortu zen hainbat LGBTI erakunderen eta aktibista independenteen egitura hau, eta erreforma horien berrespena eragozteko zuzen helburu. Hona hemen aliantza hori sortu zuten erakundeak:

- . Entre Amigos elkarte
- . ASPIDH ARCOIRIS Trans
- . Fraternidad Gay Sin Fronteras
- . Cámara de Comercio Gay
- . EISalvadorG.com (El Salvadorreko sexu-aniztasunari buruzko egunkari digitala: [www.elsalvadorg.com](http://www.elsalvadorg.com))
- . ASTRANS LGBTI
- . Gay, lesbiana, trans eta bisexualen giza eskubideen alde diharduten aktibista independenteak.

<https://observadorjuvenil.wordpress.com/2009/06/19/comunicado-de-la-alianza-por-la-diversidad-sexual-lgbt-el-salvador/>

<http://www.amate.org.sv/biblioteca1.php?ID=19>

---

### EL SALVADORREKO TRANS ERAKUNDEEN SAREA – TRANSAL SAREA

Intzidentzia politikoaren, kontraloria sozialaren eta trans populazioen onurarako politika publikoen bidez GIBa duten zein ez duten trans pertsonen giza eskubideak sustatu eta defendatzeko eta estigma eta diskriminazio mota oro desagerrarazteko helburua dauka.

Sareak herrialdean dauden 5 trans erakundeak biltzen ditu: COMCAVIS TRANS, **ASPIDH ARCOIRIS Trans**, HT503 - Generación Hombres Trans, ASTRANS LGBTI eta ALEJANDRIA KOLEKTIBOA.

Nazioarteko Planarekin eta Eskubidea Aplikatzeko Azterlanen Fundazioarekin (FESPAD) batera, **Genero Identitateari buruzko Legearen aldeko Mahai Iraunkorra** eratu zuen 2014. urtean, legearen aurreproiektu-proposamen bat lantzeko.

Mahaiaren helburuen artean, halaber, honako hauek aipa daitezke: LGBTI pertsonen eskubide eta interesen betetzea sustatzea, trans pertsonen garapen akademiko, zientifiko eta kulturala bultzatzea eta LGBTI pertsonak babesten dituzten erakundeen arteko elkartasuna sendotzea.

Mahaiaren lana gizarteko hainbat eragilerekin kudeaketa-lanean eta intzidentzia politikoan jardutera bideratuta dago, trans pertsonen genero-adierazpena duin bihurtuko duen lege baten beharra agerian uzteko.

“El Salvadorreko Estatuak trans populazioarekin zorretan dagoela onartzen da: pertsona horiek legezko dokumentuetan beren genero-adierazpenarekin bat datorren izen batekin identifikatzeko duten eskubidea babestuko duen lege bat landu behar da, El Salvadorreko araudian dagoen lege-hutsuneak ikusezin bihurtzen baititu trans pertsonak eskubideen subjektu gisa”.

<https://www.facebook.com/LeyDeldentidaSLV/>

---

## **SEXU-ANIZTASUNAREN MAHAIK LAN, HEZKUNTZA, OSASUN, SEGURTASUN ETA JUSTIZIAKO MINISTERIOETAN**

Elkarrizketarako eta herritarren parte-hartzerako gune instituzionalak dira, eta LGBTI komunitatea kezkatzen duten gaiak lantzen dituzte.

---

## **GIZA ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO PROKURADORETZAREN (PDDH) LGBTI PERTSONEN ESKUBIDEEN MAHAI IRAUNKORRA**

PDDHk sortutako gune instituzional bat da, eta LGBTI populazioaren aldeko koordinazio, azterketa eta intzidentzia politikoko ekintzak egitea eta populazio horren aldeko politikak monitorizatu, aztertu eta eztabaidatzea du helburu.

---

## **GIZA ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO PROKURADORETZAREN (PDDH) GIB-ARI ETA GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO MAHAI TEMATIKOA**

Giza Eskubideak Defendatzeko Prokuradoretzak 2015ean sortutako gune instituzional bat da.

GIBari lotutako giza eskubideen defentsan diharduten gizarte zibileko erakundeez osatuta dago, eta PDDHren laguntza jasotzen du.

Helburu nagusia honako hau da: GIBarekin bizi diren pertsonen eskubideak defendatzera bideratutako ekintzak aztertu, babestu eta bultzatzeko eremu bat zein gizarte zibilak Estatuko erakundeetan eragiteko (eta, era horretan, erakunde horiek GIBari lotutako giza eskubideak betetzera bultzatzeko) tresna bat sortzea.

Osatzen duten erakundeak honako hauek dira:

- “ Norma Virginia Guirola de Herrera” Azterlan Institutua (CEMUJER)
- Atlacatl Vivo Positivo Elkarte.
- El Salvadorreko Unibertsitateko Ikasleen Sexu Aniztasunerako Elkarte.
- GIBaren Prebentziorako, Hezkuntzarako eta Pertsonen Laguntzeko Fundazio Nazionala (FUNDASIDA)
- Nuevo Amanecer de El Salvador Elkarte (ANADES)
- “Vida Nueva” Pertsona Positiboen Elkarte Nazionala (ANP+VN)
- “María Lorena” HIESaren kontrako El Salvadorreko Fundazioa (CONTRASIDA)
- Fraternidad Gay Sin Fronteras Elkarte
- GIBa duten Pertsonen Erdialdeko Amerikako Sarea (REDCA+)
- “Orquídeas del Mar” Emakume Sexu Langileen Mugimendua
- Prestakuntza eta Trebakuntza Integral Jasangarrirako El Salvadorreko Elkarte (ASOFOCAIS)

## ERAKUNDE LESBIKOAK

### TODAS SOMOS Kolektibo Lesbikoa

Rosario Escobedo

coles.todas.somos@gmail.com

colectiva lesbicadodassomos.blogspot.com/



F2007. urtean sortu zen, “Sector de Mujeres” Aliantzaren parte gisa. Lesbianen kolektibo bat da, eta heteroerrealitatea desagiten laguntzeko gogoeta eta azterketarako guneak sustatzen ditu.

Autodefentsa feministako tailerrak, kirol-jarduerak, jaiak eta topaketak egiten dituzte, amatasunari eta amakidetasunari, feminitateari eta sexualitateari, lesbofobia barneratuari eta emakumeen sexu-askatasunari buruzko gogoeta egiteko.

2010. urtean, mahai-inguru batzuk egin zituzten emakumeen mugimendu feministan gogoeta lesbiko-feministak txertatzeko. Landu zituzten gaien artean, honako hauek azpimarra daitezke: gorputzaren deskolonizazioa, sexualitate librea eta lesbofobia jardunbide misogino gisa.

2011. urtean, Guatemala Mugimendu Lesbikoaren historia argitaratu zuten “Construyendo pensamiento propio y autonomía” izeneko dokumentuan.

Ikus honako honetan:

[colectiva lesbicadodassomos.blogspot.com/2011\\_12\\_01\\_archive.html](http://colectiva lesbicadodassomos.blogspot.com/2011_12_01_archive.html)

### ODISCEA

**Kultura, hezkuntza eta arteetarako sexu-aniztasuneko erakundea elkarte lesbikoa.**

Jammy Castro . 502-22519216

Casa Diversa. 2ª Avda. 12-15, Zona 1. Guatemala

odiscea@odiscea.org

<https://es-la.facebook.com/ODISCEA>

Erakundea 2011. urtean sortu zen, Guatemala komunitate lesbikoaren onarpena lortzeko eta komunitate hori ikusarazteko.

Besteak beste, “Somos Guerreras” izeneko arte-jaialdiak (hip-hopean eta rapean aritzen diren nesken arteko norgehiagokak barne), futbol-partidak eta jaialdi lesbikoak egiten dituzte, baita “bisibiltate lesbikoaren ibilaldiak” ere Guatemala Hirian (musu lesbiko batekin amaitzen direnak).

Bisibiltate lesbikoaren eta berdintasuneko ezkontzaren aldeko aktibismoaren barruan, 2016. urtean hainbat lesbiana bikote “ezkondu” zituzten.

Guatemala Sexu Aniztasunaren eta GIBaren Sare Nazionalan (REDNADS) sartuta dago.

## TRANS ERAKUNDEAK

### TRANS-FORMACION - Trans gizonen kolektiboa

Alex Castillo . 502 - 22519216

Erdialdeko Amerikan sortu zen trans gizonen lehen kolektiboa da. 2014. urtean sortu zen. Gizon izateko modu berriak eta maskulinitate berriak eraikitzeko prestatu eta eraldatu beharra dagoela azpimarratzen du.

Guatemala herritarrak trans-maskulinitatean inguruan sensibiltzatzen ditu, eta, Estatu beste erakunde eta instituzio batzuekin batera, “inor kanpoan uzten ez duen” LGBTI politika bat eraikitzen du.

Casa Diversa. 2ª Avda. 12-15, Zona 1.  
Guatemala  
alexcastillohtrans@gmail.com

Guatemalako Sexu Aniztasunaren eta GIBaren Sare Nazionalen (REDNADS) eta 2015ean sortutako Trans Gizonen Erdialdeko Amerikako Sarean (RECATH) sartuta dago.

Kolektiboko kideei “Hombres en Transformación” dokumentalean egindako elkarrizketa: [youtu.be/RHyCWxGGLmc](https://youtu.be/RHyCWxGGLmc)

### **OTRANS - Reinas de la Noche Trans Erakundea**

Andrea González / Stacy Velázquez  
502-22510685  
6ª Avda y 11 calle, Edificio PANAM,  
Oficina 401.  
Guatemala  
[www.reinasdelanoche.org.gt](http://www.reinasdelanoche.org.gt)

Trans emakumeak babesteko 2004. urtean sortutako erakundea da (bazkideen herenak Erdialdeko Amerikakoak dira).

Sexu-lanarekin, migrazioarekin, arrazakeriarekin eta pobreziarekin lotuta dauden gaiak lantzen ditu.

REDLACTRANS sarean sartuta dago, eta Sexu Eskubideen eta Ugalketa Eskubideen Konbentzioan ordezkatzeko du sare hori ([www.convencion.org.uy](http://www.convencion.org.uy)).

Halaber, Guatemala ordezkatzeko du Amerikako Estatuena Erakundearen (AEE) LGBTI Aktibisten Batzordean.

Bazkide asko erail dituzte, eta beste asko desagertuta daude: 2016. urtean, **Evelyn Robles** erail zuten bere etxean. Evelyn OTRANSeko presidenteordea zen, eta **Paulina Marrot** trans aktibistaren erailketaren funtsezko lekukoa (Paulina Marrot poliziari erail zuen 2005ean).

Jazarrita eta mehatxatuta sentitzen dira Evelynen erailketaren ondoren, baina ez dute babes-neurririk.

### **REDMMUTRANS - Trans Emakumeen Sare Multikulturala**

Galiilea Bracho  
15 Calle A, 0-06, Zona 1. Guatemala  
[redmmutransguatemala@yahoo.com](mailto:redmmutransguatemala@yahoo.com)  
[www.redmmutrans.org.gt](http://www.redmmutrans.org.gt)



Emakume transexualen, sexu-langileen eta bestelako ogibideak eta antolamendu-esperientziak dituztenen taldea. 2011. urtean sortu zen, herrialdeko 7 departamentutan giza eskubideak sustatzeko eta transexualak diren emakume maia, garifunak, xinkak eta mestizoak ahalduzko helburuarekin, betiere kultura anitzeko, kultura arteko eta deszentralizatutako ikuspegi batetik.

GIBaren arreta eta prebentzioari lotutako prozesuak egiten dituzte, salaketa bisibilizazio kolektiborako baliabide gisa erabiltzen dute, eta ekintza politikoak antolatzen dituzte aliantzak garatzearen bidez.

ILGA-LAC erakundean eta Giza Eskubideen Defendatzaileen Erdialdeko Amerikako Ekimenean parte hartzen dute UDEFEGUA erakundearen bitartez.

2015eko hauteskundeetan, 5 behatzaile jarri zituzten, eta, lehen aldiz Guatemalan, trans emakumeen parte-hartzea bultzatu zuten publikoki, “botoa emateko eskubidea estigmatik, diskriminaziorik eta transfobiarik gabe erabiltzeko”.

Galiilea Brachok honako hau dio: “Gure xede-populazioa trans emakumeak dira, kalteberenak garelako, gure komunitatean GIBaren

	<p>indizea oso handia delako (% 23,5 hiriburuan) eta osasun integrala, hezkuntza eta, zer esanik ez, lan duina lortzeko aukerarik ez dugulako. Trans emakumeen % 90ek, gure genero-identitatea dela-eta, sexu-lanean aritu behar dugu Guatemalan”.</p> <p>Ikus elkarrizketa honako honetan:  <a href="http://www.facebook.com/redmmutrans.guatemala/?fref=ts">www.facebook.com/redmmutrans.guatemala/?fref=ts</a></p>
--	---

<p><b>EN TACONES Trans Emakumeen Kolektiboa</b></p> <p>Simoné Janeiro  <a href="https://facebook.com/simone.janeiro">facebook.com/simone.janeiro</a>  <a href="https://facebook.com/colectivodemujeresentacones/">facebook.com/colectivodemujeresentacones/</a></p>	<p>6 emakume transexual ez osatutako kolektibo bat da, eta 2014an sortu zen, GIBarekin bizi diren emakume transgendero, transexual eta trabestiekin lan egiteko.</p> <p>Beren giza eskubideen eta ahalduzko inguruko jakintza sustatzen dute, GIBaren prebentzioan dihardute, trans emakumei osasun-zentroetara joaten laguntzen diete (antirretroviralak lortzeko), eta emakume horientzat sendagaiak lortzen saiatzen dira, hormonak arriskurik gabe hartzeko.</p> <p>LGBTI Erakundearen Federazioan sartuta daude.</p>
---	---

## LGBTI ERAKUNDEAK

<p><b>LAMBDA Elkarte</b></p> <p>Carlos Valdés  Franklin Morales  502-22519216  Casa Diversa. 2ª Avenida 12-15, Zona 1.  Guatemala  <a href="mailto:lambda.guatemala@gmail.com">lambda.guatemala@gmail.com</a>  <a href="http://www.lambda.org.gt/">www.lambda.org.gt/</a></p>	<p>GKE hau 2010ean sortu zen, sexu-aniztasunari lotutako pertsonen Guatemalako gizartean parte hartzeko aukera sustatzeko helburuarekin, eta giza eskubideen erabilera du ardatz.</p> <p>Intzidentzia-ekintzak egiten dituzte. Adibidez, “LGBTI populazioaren adiskideak diren udalerrak” (“Municipios amigables con la población LGBTI”) izeneko udal-intzidentziako proiektua herrialdeko 3 departamentutan garatu dute.</p> <p>Europar Batasunak finantzaturako “Centroamérica Diferente” (“Erdialdeko Amerika desberdina”) proiektuan parte hartu zuten.</p> <p>REDNADS erakundearekin batera, Gay, Lesbiana, Bisexual, Trans eta Intersexualen Nazioarteko Elkartearen (ILGA) hurrengo biltzarra antolatzen ari da (Biltzarra Guatemalan egingo da, 2017ko azaroan).</p> <p>Bestalde, “LGBTI pertsonen giza eskubideen eta gizarteratzearen Behatokia” jarri zuen abian. Horrelako behatoki bakarra da herrialdean, baina ez dago baliabiderik mantentzeko. Mugako 3 departamentutan gertatutako gorroto-krimenak erregistratzen dituzte hiru hilean behin.</p>
---	--

<p><b>OASIS - Hiesari aurre egiteko Sexualitate Integralaren aldeko Erakundea</b></p> <p>Jorge López Sologaitoa . 502-54142350  3ª calle 3-48 B, Zona 2. Guatemala</p>	<p>1993an sortu zen, GIBaren prebentzioan lan egiteko. 1999. urtean, giza eskubideak defendatzeko erakunde bihurtu zen, eta osasun integralari eta GIB/HIESari lotutako proiektuak egiteaz gain, LGBTI kolektiboan bisibilitatea eta haien eskubideen aldeko iritzia publikoa sorrarazten du eta intzidentzia politikoa eta soziala garatzen du.</p>
--	--

joluloso@yahoo.com  
www.ongoasis.org

Azken urteotan, OASISek murriztu egin ditu bere gizarte-zerbitzuak, eta LGBTI komunitateen giza eskubideen defentsan dihardu. Halaber, haien kontrako gorroto-krimenak, erasoak eta abusuak salatzen ditu, tokiko eta eskualdeko oinarritzko komunitate-erakundeei prestakuntza eta sendotzeko aukera eskaintzen die, intzidentzia politiko mota desberdinak garatzen ditu eta sexu bereko bikoteak lotzeko zeremoniak egiten ditu (ofizialki onartuta ez badaude ere).

1997. urtean, OASISeko bazkide **María Conchita** judizioz kanpo hil zuten, erakundearen egoitzatik hurbil. 2005. urtean, OTRANSEko kide eta OASISeko langile **Paulina Marrot** erail zuten poliziaek.

Bestalde, **Jorge López Sologastoa** bahitu egin zuten 2003an, hainbat atentatu eta jazarpen jasan ditu, eta Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak (CIDH) ezarritako kautelazko babes-neurriak ditu 2003. urteaz geroztik.

### SOMOS Elkartea

Marco Vinicio . 502-42323029  
2ª calle 5-58, Zona 2. Guatemala



LGBTI pertsonen komunitate-sistema sendotzen dihardu 5 udalerritan. Tokiko intzidentzia garatzen du, eta LGBTI erreibindikazio-egendak egiten ditu, udalerrietan erabakiak hartzen dituzten erakunde arteko mahaietan onar daitezten.

“Estigmatik eta diskriminaziorik gabeko” komunitate-zentro bat dauka, eta lokalik eta ballabiderik ez duten beste LGBTI kolektibo batzuk hartzen dituzte bertan.

GIBaren prebentzioan eta arretan dihardute, eskariaren arabera (proba egiten dute eta kondoiak banatzen dituzte).

ODISCEA erakundearekin batera, Homofobiaren kontrako 1. Ibilaldia antolatu zuen Guatemala Hirian.

LGBTI Erakundeen Federazioa zuzentzen du. Federazio hori hainbat kolektibo txikiz osatuta dagoen sare bat da, ez du nortasun juridikorik eta oinarritzko mailan dihardu auzo eta udalerrietan.

### GENTE FELIZ DIVERSA Elkartea

Henry Cortez  
502 - 22532838 . 22301195  
6ª Avda. “A” 1-87, Zona 1  
Guatemala  
ongentefeliz@yahoo.es  
ongentefeliz@gmail.com  
<http://organizaciongentefeliz.webs.tl>

Oinarritzko komunitate-elkarte hau 2007. urtean sortu zen, GIBarekin bizi diren LGBTI pertsonekin lan egiteko.

10 dira taldean, eta honako hauek lortzeko helburua dute:

- hezkuntzari, osasunari eta enpleguari dagokienez LGBTI gazteen eskubideak bermatuko dituen legezko esparru juridiko bat.
- Zigor Kodearen 202 bis artikulua erreforma, sexu-orientazio eta genero-identitateagatiko diskriminazioaren debekua txertatzeko.
- LGBTI komunitatearen eskubideak bermatzeko politika publiko bat eta Lotura Zibilar buruzko lege bat (“berdintasunezko ezkontza nahi genuke, baina urratsez urrats egin behar dugu aurrera”).

LGBTI Erakundeen Federazioan sartuta dago.



## LGBTI KOLEKTIBOekin LAN EGITEN DUTEN AKTIBISTAK ETA GKE-AK

### Fernando Us

502 - 53263229

LGBT eskubideak defendatzen dituen aktibista maia kitxea.

Honela definitzen du bere burua: “homosexuala eta maia: Guatemalan inork izan nahi ez duena”.

Bere ustez, LGBTI mugimenduan arraza mestizoa da nagusi, eta LGBTI indigenak “ikusezinen artean ikusezinak” dira.

### María José Rosales . 502 - 31106109

shucoshuquito@gmail.com

SOMOS TODAS Kolektibo Lesbikoko kide ohia da. Gaur egun, “LGBTI Mugimendutik kanpoko” lesbiana feministatzat hartzen du bere burua.

Nosotras Las Otras kolektiboak (ikerketan, komunikazioan eta arteetan diharduten lesbiana feministak) 2009an sortutako IMAGINA izeneko aldzkari lesbofeministan lan egiten du.

Guatemalako mugimendu lesbikoaren historia laburbiltzen duen “Construyendo pensamiento propio y autonomía” dokumentuaren egilea da. Ikus honako honetan:

[http://colectivalesbicatodassomos.blogspot.com/2011\\_12\\_01\\_archive.html](http://colectivalesbicatodassomos.blogspot.com/2011_12_01_archive.html)

### UDEFEGUA - Guatemalako Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Unitatea

Claudia Samayoa  
csamayoa@gmail.com

Jorge Santos  
jsantos@udefegua.org  
502-22545840 . 4496

1ª calle 7-45, Zona 1. Guatemala  
udefegua@udefegua.org  
www.udefegua.org

Erakunde honek, 2000. urteaz geroztik hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie giza eskubideak defendatzen dituzten pertsoneri Guatemalan: Defendatzaile horiek orientatzen ditu, haien aurkako erasoak ikertu, salatu, babestu eta monitorizatzen ditu, beren segurtasunaren kudeaketan eta autokudeaketan prestatzen eta indartzen ditu, intzidentzia-prozesuetan laguntzen die, kautelazko neurriak eskatzen ditu eta abar.

Defendatzaileen sektoreko arazo nagusiei buruzko datuak biltzen dituen urteko txosten bat egiten du, bidezkoak diren babes-ekintzak prestatu ahal izateko.

## LGBTI ERAKUNDEEN SAREAK



LGBTI erakundeen sare bat da, 2006. urtean sortua. Gay, lesbiana, bisexual, tran eta intersexualen (LGBTI) komunitateen herritartasuna eta parte-hartze soziala, kulturala eta politikoa sendotzeko ekintzak egiten ditu. Homofobiaren kontrako 1. Kanpaina Nazionala (2014) eta LGBTI Populazioaren Giza Eskubideen VI. Biltzarra bultzatu ditu. Halaber, LGBTI komunitateen testuinguruak agerian utzi ditu CIDHen aurrean, bi aldez.

Hona hemen gaur egun osatzen duten erakundeak: Lambda Elkarte, Trans-formación Gizonen Kolektiboa, Gente Positiva Elkarte, ODISCEA, Asociación Liberal Integrada-ALI (Izabal), Casa de Colores (Retalhuleu), Marco Antonio Fundazioa eta Vidas paralelas (Quetzaltenango).

Erakundearen ildo estrategikoen artean, honako hauek azpimarra daitezke:

- GIBari emandako erantzun nazionalaren intzidentzia eta monitorizazio estrategikoa.
- Sortzen diren LGBTI lidergoetarako prestakuntza politikoko eskola.
- Sortzen diren LGBTI kolektiboen sendotze instituzionalerako estrategia.
- LGBTI komunitateentzako Politika Publiko Integral baten eraikuntza (Gobernuak giza eskubideen arloan jarraitutako politika koordinatzeko Batzorde Presidentzialarekin –COPREDEH– batera).
- LGBTI legegintza-agendaren eraikuntza eta posizionamendua.
- Espetxe Sistemaren Zuzendaritza Nagusiaren sendotzea, preso dauden LGBTI pertsonak babesteko.
- Fiskaltzaren eta Erakunde Judizialaren sendotzea, LGBTI pertsonen justizia lortzea eragozten dieten hesiak ixteko.

REDNADS erakundeak sendotze komunitario, instituzional eta teknikoko prozesuak sustatzen ditu, eta honako hauetan ordezkatzen ditu bere bazkideak eta LGBTI komunitateak:

- Estatuaren eta LGBTI komunitateen sektore arteko mahaia.
- Giza Eskubideen eta GIBaren Legezko Sarea.
- Espetxe-sistema erreformatzeko politika integrala garatzeko batzordea.
- Fiskaltzaren Krimen Politika Demokratikoa eraikitzeko Batzordea.
- Elkarrizketa Nazionala.

Koordinatzailea: Carlos Romero (502-22303111 / 58558933; macondo1981@hotmail.com).

Helbidea: Casa Diversa. 2ª Avda. 12-15, Zona 1. Guatemala. Webs: [www.rednads.org](http://www.rednads.org); [www.facebook.com/red.nacional](http://www.facebook.com/red.nacional)



---

## GUATEMALAKO LGBTI ERAKUNDEEN FEDERAZIOA

SOMOS Elkarteak, Mujeres en Tacones Kolektiboak, Gente Feliz Diversa Elkarteak, FOGATAk, ODASak eta LGBTIen oinarritzko beste komunitate-erakunde batzuek osatzen dute sarea.

Bartzelonako STOP SIDA GKEaren trebakuntza jaso dute, LGBTI kausarekin konprometitutako boluntarioritza-egitura bat sortzeko.

Kritiko agertzen dira Mundu Funtsaren eta lankidetzaren baliabideak biltzen dituzten LGBTI erakunde handiekin. Kideek berek diotenez, “beste erakunde batzuen proiektuak (baita heterosexualek kudeatzen dituztenak ere) erabiltzeari utzi nahi diogu, eta gure proiektu propioen subjektu bihurtu nahi dugu, pertsonalki eta kolektiboki sendotzeko... Gure asmoa ez da kideek ezagutzen ez dituzten eta erakundeek aplikatzen ez dituzten eskuliburu zoragarri batzuk egitea, LGBTI komunitatea sendotzea baizik”.

## ERAKUNDE LESBIKOAK

### **CATTRACHAS Sare Lesbikoa**

Indyra Mendoza

504 - 323964790

Barrio La Plazuela, Avda. Cervantes, casa 131.  
Tegucigalpa

indyramendoza@yahoo.com

www.cattrachas.org



Erakunde lesbiko feminista hau 2000. urtean sortu zen, LGBTI kolektiboen giza eskubideen urraketek erantzun lesbiko bat emateko sare giza jarduteko. 2003. urterako, komunikazio- eta intzidentziare bihurtu zen, eta, harrez geroztik, komunitatearen giza eskubideen urraketak salatzan ditu.

4 emakume profesional ez eta sexu-orientazio eta genero-identitate orotako 20 boluntarioz osatuta dago. Horiek guztiek babes profesionala ematen diote kolektibitateari, ebidentzietan oinarritutako intzidentzia politikoa, ikerketa, preso dauden LGTB pertsonen jasandako torturen salaketa, itzal-txostenak eta bideoak egiten dituzte, poliziak trebatzen dituzte, kasuak Justiziara eramaten dituzte eta haien jarraipena egiten dute.

Sareak LGTBlen Indarkeriazko Heriotzen Behatoki bat du 1994. urteaz geroztik, eta Estatuak fidagarritzat hartu du. Behatokiaren iturriak komunikabideak dira. Gainera, Justizia Sistemaren Auditoria Sozialaren oinarria da.

Amerikako Estatuaren Erakundearen (AEE) Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak (CIDH) esleitutako kautelazko babes-neurriak jasotzen ditu.

### **LITOS – Emakume bisexual eta lesbianen kolektiboa**

Esdra Sosa

504-33217070 . 22638054

Barrio Concepción, 3ª Avenida, casa 1046.  
Tegucigalpa

arcoiris\_litoshn@hotmail.com

ARCO IRIS Elkartearen sartuta dago, baina funtzionamendu autonomoa du. Kideek diotenez, feministak eta "elkarteko borrokalariak" dira.

150 emakume inguru biltzen ditu, eta autobabes emozionaleko taldeak eta emakume lesbianek eta bisexualek jasaten duten indarkeria espezifikoari buruzko tailerrak egiten dituzte, baita osasun-feriak eta martxak antolatuta ere.

Erdialdeko Amerikako Emakumeen Funtzsaren (FCAM) finantzaketa jaso du 8 urtean.

### **IXCHEL Taldea**

Lucy Barrientos

504 - 22397326

Barrio San Rafael, 1ª calle, casa 1522.  
Tegucigalpa

grupoixchelhonduras@gmail.com

KUKULCAN Elkartearen barruan sortu zen 2008. urtean, baina funtzionamendu autonomoa du.

20 lesbiana, bisexual eta transexualek (gizon eta emakumeek) osatzen dute. Orain feministak direla diote; duela 6 hilabete arte, "emakumeen eskubideen alde" lan egiten zuten.

LGBTI pertsonen giza eskubideei, genero-berdintasunari eta sexu- eta ugalketa-osasunari lotutako gaiak lantzen dituzte. Halaber, neska futbolariak sexu- eta ugalketa-eskubideetan prestatzen dituzte.

Erdialdeko Amerikako Emakumeen Funtzsaren (FCAM) finantzaketa jaso du 5 urtean.

## TRANS ERAKUNDEAK

### COZUMEL TRANS Elkarte

Rihanna Ferrera

504 - 2222426-3864

Barrio Abajo, Avda. Miguel Paz Barahona,  
Casa 5.

Tegucigalpa

rihannaofarrell@hotmail.com

acozumeltrans@gmail.com

Erakunde hau “Tegucigalpako Trans Sare” gisa sortu zen 2003. urtean, gainerako LGBTI taldeetan parte hartzen zuten trans emakumeak biltzeko.

Trabestiez, transgeneroez eta transexual ez osatutako elkarte da, eta, 2014. urteaz geroztik, sexu-langileekin, preso dauden trans pertsonekin, populazio garifunarekin eta gazteekin ere lan egiten du.

Funtzionarioak eta polizia militarrek sentsibilizatzen ditu, pertsona horien eskubideak errespetatu dituzten. Intzidentzia politikoko ekintzak egiten ditu erabakiak hartzen dituztenekin, populazio horien intereseko legeak egin ditzaten. Horren ondorioz, Zigor Kodea (131. artikulua) aldatu da sexu-orientazio edo genero-identitateagatiko diskriminazioa desagerrarazteko, eta Erregistroaren Legea erreformatu da, trans pertsonen beren identitate-agiriaren argazkia aldatu ahal izan dezaten.

Mundu Funtzaren baliabideekin, sexu-transmisiozko gaixotasunen eta GIBaren prebentzioan trebatzen ditu beste departamendu batzuetako trans pertsonak.

“Barrekin” lan egiten du (futbol-talde jarraitzaileekin), eta LGBTI kioskoak jartzen ditu kaleetan, herritarrek sentsibilizatzeko.

Jantoki solidario bat dauka trans migratzaileentzat, eta antzerki-taldea ere badu.

### CRISALIDAS TRANS

Daryana Palada

Carretera a San Manuel, Colonia Tres Rosas,  
Casa 8.

Villanueva, Cortés

[www.facebook.com/crisalidatrans/](http://www.facebook.com/crisalidatrans/)

Giza eskubideen urraketak salatzen dituzten trans pertsonen lege-aholkularitza eta laguntza eskaintzen dieten trans emakumeen kolektibo bat da.

GIB/HIESaren inguruko heziketa eta prebentzioa lantzen du.

Villanuevako Bake eta Bizikidetzarako Udal Batzordearen lan-mahaietan parte hartzen du.

### UNIDAD COLOR ROSA Kolektiboa

Gabriela Redondo

San Pedro Sula

[www.colectivounidadcolorrosahonduras.org](http://www.colectivounidadcolorrosahonduras.org)

Kolektibo hau 2010. urtean sortu zen, transexualen, trabestien eta transgeneroen giza eskubideen alde lan egiteko asmoarekin.

Trans populazioarekin GIB/HIESaren prebentzioan lan egiten espezializatuta dago, eta trans emakumei zuzendutako informazio, autozaintza eta segurtasuneko tailerrak egiten ditu.

Diskriminaziorik gabeko Genero Identitateari buruzko Legearen aldeko kanpaina bultzatu du aktiboki, eta San Pedro de Sulako Infanteriako 105. Brigadaren instalazioetako 60 militar sentsibilizatu zituen giza eskubideen eta Genero Identitateari buruzko Legearen inguruan (lehen erakunde izan zen horrelako lanetan).



Hondurasko trans kolektiboak Latinoamerikako eta Karibeko Trans Pertsonen Sarean (REDLACTRANS) ordezkatzen dituen erakundea da.

Kontinenteko beste 12 trans erakunderekin batera, HIESaren kontrako Mundu Funtsak bultzatutako REDLACTRANSen proiektu bat egikaritzen du 2016. urteaz geroztik.

Diskriminaziorik gabeko Genero Identitateari buruzko Legearen aldeko kanpainaren bideoa:

(<https://www.facebook.com/695817700440206/videos/764750466880262/>)

## LGBTI ERAKUNDEAK

### **SOMOS CDC – LGBTI Garapen eta Lankidetzarako Zentroa**

Alex Sorto

David Valle

504 - 22220291

Barrio La Hoya, casa 885.

Tegucigalpa

somoscdc@somoscdc.hn

[www.facebook.com/somoscdchn](http://www.facebook.com/somoscdchn)

GKE honen aurrekaria 2009an sortutako Asociación Jóvenes en Movimiento (AJEM) da. 2015. urtean, LGBTI Lidergo Politikoei buruzko Latinoamerikako 2. Konferentzia antolatu zenean, SOMOS CDC izena hartzea erabaki zuen.

Erakundea osatzen duten 10 profesionalak 4 lan-arlo garatzen dituzte:

- Sexu- eta ugalketa-osasuna (GIB/HIESa eta lesbianen intereseko beste gai batzuk).

- LGBTI populazioaren giza eskubideen sustapena.

- Parte-hartze politikoa eta LGBTI lidergoen sustapena (LGBTI Prestakuntza Politikoko Eskola, Erdialdeko Amerikako estaldurarekin).

- LGBTI pertsonen ahalduntze ekonomikoa (Ahalduntze Eskola eta negozio-planerarako kreditu bidezko laguntza, trans emakumeentzat batez ere).

Halaber, HIVOS erakundeak Hondurasen LGBTI kolektiboekin giza eskubideetan lan egiteko banatutako funtsak administratzen ditu, eta USAIDek gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonekin (GSG) garatzeko finantzatzen duen lanaren puntu fokala da.

LGBTI talde txikiak sendotzen ditu, eta haienzako finantzaketa lortzeko aukera sustatzen du.

Amerikako Estatuena Erakundearen (AEE) Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak (CIDH) esleitutako kautelazko babes-neurriak jasotzen ditu.

### **KUKULCAN Elkarte**

Javier Medina 504-22397326 . 33517278

Barrio San Rafael, 1ª calle, casa 1522.

Tegucigalpa

[akukulcan@gmail.com](mailto:akukulcan@gmail.com)

Elkarte hau gay talde batek sortu zuen 2002. urtean, eta GIB/HIESari lotutako gaiak lantzea du xede.

Elkartearen jarduera nagusia GIB/HIESaren prebentzioan eta arretan datza, gay eta transen egoerara bideratuta. Halaber, laguntza psikosoziala eskaintzen du indarkeria- eta jazarpen-kasuetan, eta gorroto-krimenei lotutako kasuen jarraipena egiten du.

	<p>HIESaren kontrako Mundu Funtsak herrialdean GIBari aurrea hartzeko bideratzen dituen baliabideak kudeatzen ditu.</p> <p>Europar Batasunak finantzaturako “Centroamérica Diferente” (“Erdialdeko Amerika Desberdina”) proiektuan parte hartu du.</p>
<p><b>ARCO IRIS Elkarte</b></p> <p>Donny Reyes 504-22638054</p> <p>Barrio Concepción, 3ª Avenida, casa 1046. Tegucigalpa</p> <p>arcoirisghn@yahoo.com</p> <p>www.lgtbarcoirishn.org/</p>	<p>Erakunde hau 2003. urtean sortu zen, LGBTI komunitatea osasun integralaren sustapenari eta giza eskubideen defentsari lotutako gaietan ahalduntzeko eta informatzeko helburuarekin.</p> <p>Lantzen dituen gaien artean, honako hauek azpimarra daitezke: giza eskubideak, lidergoak, ahalduntzea, intzidentzia politikoa, GIBaren eta beste STG batzuen prebentzioa, kondoiaren erabilera zuzena, autoestimua eta sexu- eta ugalketa-osasuna. Halaber, LGBTI pertsonen bidegabeko atxiloketei lotutako salaketak babestu eta gorro-krimenak ikertzen ditu.</p> <p>Bestalde, Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Kontseilu Nazionalen parte hartzen du. Erakunde ofizial hori 2012an Hondurasi giza eskubideen betetzeari dagokionez egindako Aldizkako Azterketa Unibertsalaren (AAU) ondoren sortu zen.</p> <p>Halaber, nazioarteko erakundeek Hondurasi sexu- eta ugalketa-eskubideei, emakumeen eskubideei edota LGBTI kolektiboen eskubideei dagokionez egindako gomendioak monitorizatzen ditu.</p>
<p><b>MDR - Diversidad en Resistencia Mugimendua</b></p> <p>José Palacios</p> <p>pepe.hn@gmail.com</p> <p>www.facebook.com/Movimiento.de.Diversidad.en.Resistencia/</p>	<p>Mugimendu hau 2010. urtean sortu zen, eta LGBTI kolektiboen parte-hartze politikoa eta erabateko herritartasuna sustatzea du helburu.</p> <p>2009ko estatu-kolpeari erantzuteko sortu zen Herri Erresistentziaren Fronte Nazionalari (Frente Nacional de Resistencia Popular) lotuta dago, eta LGBTI pertsonen prestakuntza politikoa sustatzen du, parte-hartzeari, giza eskubideei, intzidentziari eta gizarte-aldaketari lotutako erronkei ikuspegi sozialista eta feminista batetik erantzuteko.</p> <p>2013. urtean, 6 gay, lesbiana eta trans izendatu zituzten mugimendua Libertad y Refundación (LIBRE) alderdiaren Biltzar Nazionalen ordezkatzeko.</p> <p>2013an egindako elkarrizketa batean, José Palaciosek honako hau adierazi zuen: “Tamalez, patriarkatua gizarte-talde guztietara zabaldu da, baita LGBTI erakundeetara ere; izan ere, gehienak “G” erakundeak dira (gizon gayenak, alegia). Kultura matxista erreproduzitzen dute: lesbianak bigarren mailako herritartzat hartzen dituzte (gure gizarteko emakume guztiak bezalaxe), eta trans populazioa beste ezein baino okerrago tratatzen dute. Gaur egun, aktibista edo lider gutxi datoz bat MDRren ikuspegi sozialista eta feministarekin, baina zifrak gora ari dira egiten”. Ikus elkarrizketa honako honetan:</p>



<https://www.socialism.com/drupal-6.8/articles/honduras-entrevista-con-el-organizador-pepe-palacios-un-orgulloso-luchador>

### **COLECTIVO VIOLETA Elkarte**

José Antonio Bonilla

504 - 2374905 . 22374905 . 22205045

Barrio La Plazuela, Avda. Cristóbal Colón, casa 1414.

Tegucigalpa

colectivo\_violeta@yahoo.com

www.fundacionllaves.com

1985. urtean hasi ziren GIB/HIESaren epidemiari aurre egiten (Asociación Hondureña de Homosexuales contra el SIDA izenarekin), baina 1995ean osatu zuten Colectivo Violeta Elkarte, gayen giza eskubideak, bisibilizazioa eta ahalduntzea sustatzeko eta estigmaren eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko.

Hezkuntza-jarduerak egiten dituzte (tailerrak, kanpamentuak, zineforumak eta abar), GIBaren probak bidaltzen dituzte, kondoiaren horniduraz arduratzen dira, eta aholkularitza eta laguntza eskaintzen diete giza eskubideen urraketak salatzen dituztenei.

### **CEPRES - Osasunaren, Sexualitatearen eta Hiesaren inguruko Hezkuntza eta Prebentzioko Zentroa**

Josué Hernández

504 - 25500217 . 32454948

Barrio Concepción, 4ª calle y 2ª Avda. Galería Loura, Segundo Nivel, Local 21. San Pedro Sula

coordinacioncepres@gmail.com

1996. urtean sortu zen, eta GIBaren prebentzioa lantzen dute gay gazteekin.

Halaber, salaketak jasotzen dituzte eta giza eskubideak defendatzeko ekintzak egiten dituzte sexu-orientazioagatik edo genero-adierazpenagatik jazarpena, erasoak eta mehatxuak jasaten dituzten LGBTI komunitateko aktibista eta kideei laguntzeko.

### **LLAVES Fundazioa - Llanto, Valor y Esfuerzo**

Rosa González

504 - 25543442

San Pedro Sula

fundacionllaves@yahoo.com

www.fundacionllaves.org

Erakunde hau 1999. urtean sortu zen, GIBa zuten pertsonen premia espezifikoei erantzuteko.

Esperientzia handia hartu du portaera-aldaketa osasungarrietarako komunikazioaren, GIBaren eta beste STG batzuen lehen eta bigarren mailako prebentzioaren, giza eskubideen defentsaren, intzidentzia politikoaren eta GIBaren epidemiari aurre egiteko funtsezkoak diren eragileen inplikazioaren arloetan.

Llaves izeneko informazio-aldizkaria argitaratzen du, Genero, Giza Eskubide eta Sexu Aniztasuneko diplomatura bat jarri du abian, eta GIBa duten pertsonen kontrako estigma eta diskriminazioa murrizteko kanpainak egiten ditu hitzaldi eta tailerren bidez.



## LGBTI KOLEKTIBOekin LAN EGITEN DUTEN GKE-AK

### **APUVIMEH - GIB/HIESak Infektatu eta Kaltetutako Pertsonen Bizitza Hoberako Elkarte**

Sandra Zambrano  
504 - 22460221

Aldea Suyapa, sector 2, zona del Cerro de la Cruz.

Tegucigalpa

apuvimeh@yahoo.com

www.facebook.com/APUVIMEH/  
casarenacerhonduras@yahoo.es

Elkarte hau GIB/HIESarekin bizi diren pertsonen egoitza izateko asmoarekin sortu zen 2004. urtean.

Casa Renacer izeneko aterpetxea dauka indarkeriaren biktimak diren emakumeentzat, indarkeriagatik desplazatuta dauden pertsonentzat eta GIBa duten LGBTI pertsonentzat.

Aterpetxe horretan, 6 lagunek lan egiten dute, eta 30 boluntario ingururen laguntza jasotzen dute. Garapen eta Gizarteratzeko Idazkaritzak aterpetxea eraikitzeko diru-laguntza eman zuen, eta mantentzea finantzatzen du.

Elkartearen aktibismoaren, Fiskaltzan egindako salaketan eta intzidentzia politikoaren ondorioz, mehatxuak jaso dituzte, lapurretak izan dituzte aterpetxean, eta boluntario askok erbesteratu egin behar izan dute.

Bullingari aurre egiteko eta gazteen indarkeriari aurrea hartzeko tailerrak egiten dituzte. Halaber, Identitate Erregistroko funtzionarioak eta poliziari trebatu dituzte LGBTI populazioaren eskubideen arloan.

Amerikako Estatuaren Erakundearen (AEE) Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak (CIDH) esleitutako kautelazko babes-neurriak jasotzen ditu.

### **CDM - Emakumeen Eskubideen Zentroa**

Regina Fonseca  
504 - 22210657 / 0459 / 4368

Colonia Lara Norte, Calle Lara casa 834.  
Tegucigalpa

regifonseca@gmail.com  
cdm@cablecolor.hn

www.derechosdelamujer.org

GKE feminista honek emakumeen autonomiaren sendotzea, justizia, eskubideak baliatzeko aukera, herritartasuna eta genero-berdintasuna sustatzen du.

Emakumeen giza eskubideekin konprometitutako demokrazia inklusibo bat ikuspegi feminista batetik eraikitzen laguntzea du helburu.

Honako lan-arlo hauek garatzen ditu:

- Sexu- eta ugalketa-eskubideak eta gazte-herritartasunen eraikuntza.
- Emakumeak eta lan duina.



- Emakumeen parte-hartzea.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta arreta.
- Emakumeen giza eskubideen behatokia.

## LGBTI ERAKUNDEEN SAREAK

### HONDURASKO SEXU ANIZTASUNAREN BATZORDEA

Batzordea osatzen duten erakundeak honako hauek dira: KUKULCAN Elkarte, VIOLETA Kolektiboa, APUVIMEH, ARCO IRIS Elkarte, UNIDAD COLOR ROSA Kolektiboa, COZUMEL TRANS Elkarte, IXCHEL Talde Lesbiko Bisexuala eta LITOS Talde Lesbiko Bisexuala.

Hondurasko AAUrako (2014) egindako Itzal Txostenak dioenez, Batzordea “instantzia politiko bat da, liderra herrialdeko sexu-aniztasunaren arloan, eta Estatuari, nazioarteko erakundeei, lankidetz-agentziei eta sexu-aniztasunaren inguruko problematikari lotutako beste instantzia batzuei zuzendutako erabakiak hartzen eta goi-mailako ekintzak ezartzen dituen”.

HIVOS erakundeak 2 urtean finantzaturako baterako proiektu batetik abiatuta egituratu ziren, eta esperientzia positibotzat hartu da, oro har. Gaur egun, ekintza jakin batzuetarako baino ez dira koordinatzen.

“Homofobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren esparruan, Hondurasko Sexu Aniztasunaren Batzordeak aurki Genero Identitateari buruzko Lege bat onartzeko eskatzen dio Kongresu Nazionalari, emakume eta gizon transexualek identitate propioarako eskubideaz goza dezaten, horrek neurri handi batean lagunduko baitu Hondurasen populazio horrek jasaten duen estigma eta diskriminazioa murrizten” (<https://honduprensa.wordpress.com/tag/comite-de-diversidad-sexual-de-honduras/2016ko-maiatzaren-18a>).

(<https://diversidadsexualhonduras.wordpress.com/>)

---

### HONDURASKO TRANS SAREA

Herrialdeko trans erakunde guztiez osatuta egon zen garai batean, baina desegin egin zen trans aktibista nagusiek mehatxuen eta jazarpenen ondorioz erbestera egin behar izan zutenean.

## ERAKUNDE LESBIKOAK

### ARTEMISA Talde Lesbiko Feminista

Tania Irías . 505-87612626  
thannya24@hotmail.com



Kolektibo lesbiko feminista hau 2006. urtean sortu zen. Gazte lesbianekin lan egiten du Managuan eta León eta Chinandegako 4 udalerritan, eta gogoetarako guneak (tailerrak, zineforumak eta abar) eta autoafirmazioerakoak eskaintzen dizkie.

Mugimendu Feministan parte hartzen du.

2016. urtean, Lehen Topaketa Lesbiko Feminista antolatu zuen La Corriente Programa Feministarekin batera (babesa eta prestakuntza jaso du erakunde horretatik).

Azken urteotan, gogoeta-lan bat hasi du lesbianen gurasoekin.

Trans gizon batzuek ere parte hartzen dute, eta taldea era independentean antolatzen laguntzen ari zaie.

grupoartemisa@gmail.com

www.grupoartemisa.blogspot.com

### SAFO Talde Lesbikoa

Martha Villanueva  
505 - 22500542 . 89011757 . 88688250  
De la Estatua Monseñor Lezcano  
3 cuadras al Sur, 1 cuadra arriba.  
Managua  
gruposafodoblementemujer.org  
<https://www.facebook.com/gruposafodoblementemujer.org>

Lehen talde lesbikoa da, eta 2004. urtean sortu zen. Lesbianez, bisexualen eta sexu-langileez osatuta dago.

Aholkularitza juridikoa eskaintzen du zaintzaren eta mantenu-pentsioaren arloan, eta babes psikologikoa ematen die emakumeen seme-alabei. 2010. urteaz geroztik, LGBTI pertsonen indarkeriazko heriotzen erregistro bat eramaten du, eta, gaur egun, online irrati bat sortzeko lanean ari da.

“Una mirada a la diversidad sexual en Nicaragua” (2010) azterlan aitzindariaren parte hartu zuen, eta Estatuko erakundeetan erabakiak hartzen zituzten pertsonak sentsibilizatu zituen azterlan horren emaitzekin. Duela 3 urtez geroztik, Managuako LGBTI Zinema Erakusketak antolatzen du beste bi erakunderekin batera.

Nikaraguako HIESaren Batzordean (CONSIDA) eta ILGA-LAC erakundeetan sartuta dago. Azken erakunde horretan, Erdialdeko Amerikako Idazkaritza zuzentzen du.

Sexu Aniztasuneko prokuradore Samira Montiel da sortzaileetako bat. Garai batean, taldeko koordinatzailea izan zen.

### LA LLAVE Emakumeen Gunea

Silvia Zúñiga . 505-88715759

Emakume lesbiana, bisexual, trans eta heterosexualek gune bat da, eta era autonomoan funtzionatzen du Iniciativa desde la Diversidad Sexual por los Derechos Humanos (IDSDH) erakundearen emakumeen batzordearen barruan.

De los Semáforos del Nuevo Diario  
3 cuadras al lago, 1 cuadra abajo,  
media cuadra al lago.  
Managua  
izuniga2526@gmail.com

Taldearen jarduerak emakumeenganako indarkeriaren aurkako borroka, kaleko jazarpena, diskriminazioa eta matxismoa ditu ardatz.

30 emakume inguru dira. Diotenez, “feministak eraikuntzan” dira, eta IDSDH erakundetik bereizteko asmoa dute.

## TRANS ERAKUNDEAK

### **ANIT - Nikaraguako Emakume Transgeneroen Elkartea**

Ludwika Vega . 505 - 86754513  
De la Estatua Monseñor Lezcano  
3 cuadras al sur, 1 cuadra y media arriba.  
Managua  
anit.diversidadt3@hotmail.com

La Corriente Programa Feministak trebatutako trans emakumeen elkarte bat da. 15 kide aktibo ditu, eta beste 40k jardueretan parte hartzen dute.

2016. urtean, Managuako trans pertsonen egoerari buruzko azterlan bat egin zuen, eta trans pertsonentzako arreta espezifikoari buruzko eskuliburu bat landu zuen osasun-arloan lan egiten duten pertsonentzat.

Elkartearen lehentasuna Genero Identitateari buruzko Legea lortzea da. 2010. urtean proposamen bat aurkeztu zuen, baina ez du aurrera egin.

Managuako trans emakumeen egoera:

<https://elblogdemariosvl.wordpress.com/2017/02/04/estudio-revela-marginalizacion-de-la-poblacion-trans-en-managua/>

ANITen aktibismoa eskoletan: [https://youtu.be/2SAglyll\\_sc](https://youtu.be/2SAglyll_sc)

### **AMTC - Trans Emakume Kulturalen Taldea**

Jeyssi Cayasso / Doly Mora  
505 - 82449845 - 88756889  
De los Semáforos del Iván Montenegro  
4 cuadras al Norte.  
Managua  
amtbnicaragua@gmail.com  
<https://www.facebook.com/amtbnicaragua>

Kolektibo hau 2011. urtean sortu zen, Managuako 8 de Marzo Kolektibo Feministako hainbat trans emakume eta cis emakume independizatu zirenean.

Kideek diotenez, “trans ikuspegia duen talde feminista bat” da, eta Managuako auzo pobreetako emakume gazteekin lan egiten du, gogoetarako guneen eta antzerkiaren bidez.

Mugimendu Feministaren parte sentitzen dira, LGBTI Mugimenduaren parte baino neurri handiagoan. Oso kritikoak dira mugimenduan gizon gayek duten nagusitasunarekin: “*Botere gay bat dago, eta lesbiana eta trans emakume feministek baino ez diote aurre egiten. Gayak dira nagusi, lesbianak baztertuta gaude eta trans emakumeak tartean geratzen dira. Horietako batzuek funtsak lortzeko aukera handiak dituzte, baita botere handia ere*”.

### **Nikaraguako REDTRANS Elkartea**

Silvia Martínez  
505 - 88937974 - 22892734

GKE hau 2007. urtean sortu zen, eta osasuna sustatzea du xede, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegi batetik eta batez ere GIBA jasateko arriskurik handieneko populazioak (gayak, trans pertsonak eta sexu-langileak) kontuan hartuta.

2007. urtean, trans pertsonen sexu-lanari eta GIBari buruzko kontsulta nazional bat egin zuen. Horretan oinarrituta, hainbat gomendio egin

De la Mansión Teodolinda 1 cuadra abajo,  
200 varas al lago.

Managua

silvianicaragua1@gmail.com

redtransnicaragua1@gmail.com

<http://redtransdenicaragua.blogspot.com/>

zizkion Osasun Ministerioari, eta trans pertsonen GIBaren arloan jasotzen zuten arreta hobetzeko araudia sortu zen.

“Arriskurik handieneko populazioa” ordezkatzeko du Nikaraguako HIESaren Batzordean (CONISIDA). Batzorde horren barruan, GIB/HIESa parte-hartzean, elkarrizketan eta inklusioan oinarrituta landuko duen erakunde-politika bat bultzatzen du.

## LGBTI ERAKUNDEAK

### IDS DH - Giza Eskubideen aldeko Ekimena Sexu Aniztasunetik

Marvin Mayorga

505 - 2270 5308 . 88715759

De los Semáforos del Nuevo Diario 3 cuadras  
al lago, 1 cuadra abajo, media cuadra al lago.

Managua

idsdh2.0@gmail.com

[www.idsdh.org](http://www.idsdh.org)



2007. urtean sortu zen, eta LGBTI kolektiboen giza eskubideak bete daitezzen eskatzea du xede.

Laguntza psikosoziala eta juridikoa eskaintzen die LGBTI kolektiboei, intzidentzia politikoa garatzen du Estatuko erakundeekin, eta kanpainak egiten ditu diskriminazioaren aurkako udal-ordenantzak onar daitezzen eta gorrotorik gabeko guneak ezar daitezzen ([facebook.com/enlavinadelsenornica/](https://www.facebook.com/enlavinadelsenornica/)).

“Una mirada a la diversidad sexual en Nicaragua” (2010) azterlan aitzindarian parte hartu du, eta Giza Eskubideen eta Sexu eta Genero Aniztasunaren Defendatzaileen Eskola jarri du abian.

Askok diotenez, LGBTI erakunde hori “Nikaraguako erradikalenetako bat da, eta gizartean eraginik handiena dutenetako bat, egiten duen lana errebeldea eta subertsiboa, baina politikoki oso pentsatua eta estrategikoa delako”. Halaber, feminismoaren eragin handia dauka. Taldeko koordinatzaileak dioenez, “ez dut feminista ez den LGBTI mugimendu bat ulertzen”.

Marvin Mayorgari egindako elkarrizketa:

<http://www.corresponalesclave.org/2016/01/LGBTI-y-ddhh-pendientes-en-nicaragua.html>

### ANH - Nuevos Horizontes Elkarte

Bismark Moraga

505 - 83716095 . 85972302

De la Estatua de Monseñor Lezcano  
3 cuadras al sur, 1 y media arriba.

Managua

anhnicaragua@gmail.com

<https://anhnicaragua.blogspot.com/>

Elkarte hau 2013. urtean sortu zen, LGBTI populazioaren giza eskubideak defendatzeko helburuarekin.

Bismark Moragak “Una mirada a la diversidad sexual en Nicaragua” (2010) azterlan aitzindaria koordinatu zuen. Azterlana Norvegiako Enbaxadak finantzatu zuen, eta emaitzak Giza Eskubideen Prokuradoretzaren barruan Sexu Aniztasunaren Prokuradoretza sortzeko balio izan zuten.

IDS DH eta ANIT erakundeekin –eta, askotan, GKE eta kolektibo feministekin– batera, intzidentzia politikoa eta salaketak egiten ditu Estatuko erakundeen aurrean.

Halaber, GIBaren prebentzioan lan egiten du gazteekin.

<p><b>GARAPEN JASANGARRIAREN SAREA - RDS</b></p> <p>José Ignacio López  Oscar Alvarez  505 - 22545136 . 22662090</p> <p>De la Mansión Teodolinda 1 cuadra abajo,  200 varas al lago.  Managua</p> <p><a href="http://www.facebook.com/reddedesarrollosostenible">www.facebook.com/reddedesarrollosostenible</a></p>	<p>2010. urtean, Sexu Aniztasuneko Pertsonen Giza Eskubideen Gutxieneko Agenda landu ondoren, agenda hori RDSren barruan landu zuen taldeak “armairutik ateratzea” eta erakundearen LGBTI Bulegoa sortzea erabaki zuen.</p> <p>LGBTI kolektiboen giza eskubideak sustatzen ditu giza garapen jasangarriaren esparruan (eta zuzendariak berak dioenez, “ez gehienen ikuspegia den eta finantzaketarik handiena erakartzen duen GIBaren eta sexu-osasunaren esparruan”).</p> <p>Halaber, LGBTI taldeak trebatzen ditu lidergoan, kanpainak egiteko moduan, intzidentzian eta ikerketan.</p> <p>2013. urtean, LGBTI gaiak eskubideen ikuspegian oinarrituta lantzeko Komunikazio Gida bat egin eta Gorroto Krimenei buruzko Lehen Foroa antolatu zuen.</p> <p>Sareak justiziaren eskuragarritasunari buruz egindako proiektuaren ondorioz, Justiziaren Eskuragarritasunerako Mahai Nazionala sortu zuten 19 LGBTI erakundek.</p>
<p><b>MATAGALPA ALDAKETAREN ALDEKO ERAGILEAK</b></p> <p>Christopher Mendoza  Jary López  agentes.decambio@yahoo.com  agentesdecambiomatagalpa.blogspot.com  facebook.com/jovenesagentesdecambio</p>	<p>Gazteentzako gune hau 2009. urtean sortu zuen VENANCIA talde feministak, “LGBTI gazteek gune seguru bat edukitzeko”.</p> <p>Gay, trans emakume eta lesbinez osatuta dago. Kideek diotenez, giza, sexu- eta ugalketa-eskubideak, sexu-aniztasuna, herritarren parte-hartzea, gazteen lidergoa eta diskriminaziorik gabeko inklusioa defendatzen dituzte. Beren webgunean diotenez, “komunikazio inklusiboan oinarrituta egiten dugu dena irratian eta telebistan, martxak, “plantoiak”, protestak, umorea, errebeldia, eta belaunaldi-ukitu feminista”.</p> <p>Feminismoak LGBTI borrokei egindako ekarpena onartzen dute, eta aliantza sendoa dute VENANCIA Taldearekin. Talde horrek lokala uzten die jarduerak egiteko, eta arreta psikologikoa eskaintzen die erasoak jasan dituzten LGBTI gazteei laguntzeko. Eragileek, berriz, feministei laguntzen diete beren borroketan, hala nola kaleetan jasandako indarkerian eta jazarpenean, “indarkeria matxistatik gabeko mundu batean hobeto biziko diren itxaropenarekin”.</p>

## LGBTI KOLEKTIBOekin LAN EGITEN DUTEN AKTIBISTAK ETA GKE-AK

### CEPRESI - HIESaren Prebentziorako Zentroa

Norman Gutiérrez

505 - 22707988 / 7449

Del Banco Financiero de Altamira

20 metros abajo.

Managua

dirección@cepresi.org.ni

www.cepresi.org.ni

clinica@cepresi.org.ni

1993. urtean sortu zen, STGek, GIBak eta HIESak gizonengan duten intzidentzia murrizteko asmoarekin. CEPRESI zentroak osasun-arloko hezkuntza eta arreta integrala ematen die gizonei, generoen arteko errespetuan eta berdintasunean oinarritutako maskulinitate-eredu bati eta giza eskubideen ikuspegiari jarraikiz. Honako arlo hauek lantzen ditu: portaera-aldaketetarako informazio- eta trebakuntza-lana komunikazio-tekniken bidez, giza eskubideen arloko aholkularitza eta lege-zerbitzuak, sexu- eta ugalketa-osasunaren inguruko hezkuntza, lidergoa eta maskulinitateak, intzidentzia politikoa eta LGBTI kolektiboen parte-hartzearen sustapena.

Gizonentzako Arreta Integraleko Klinika bat dauka ([youtu.be/q7\\_g\\_JFYJtg](http://youtu.be/q7_g_JFYJtg)).

2014. urtean, LGBTI Herritartasunaren Plan Nazional bat eta Gay eta GSGentzako Arreta Protokolo bat egin zuen. Haien bidez, osasun-arloko eta beste ministerio batzuetako profesionalak trebatu ditu.

Europar Batasunak finantzatutako “Centroamérica Diferente” (“Erdialdeko Amerika Desberdina”) proiektuan parte hartu du.

### LA CORRIENTE PROGRAMA FEMINISTA

María Teresa Blandón / Cristina Arévalo /

505 - 22225355

Del Canal 10, 1 cuadra y media al lago.

Managua.

lacorrientenicaragua@gmail.com

www.lacorrientenicaragua.org

1994. urtean sortu zen Erdialdeko Amerikako sare feminista gisa, eta kolektiboei eta aktibistek osatzen dute. Bi hamarkada baino gehiagotan, ekarpen handiak egin ditu teoria feministaren azterketan, ikerketan, emakume liderren prestakuntzan eta Nikaraguan eta eskualdean mugimendu feminista eraikitzeke lanean.

2005. urteaz geroztik, sexu- eta ugalketa-eskubideen inguruko prestakuntza-zikloak egiten ditu gazte, emakume lesbiana, trans eta sexu-langileekin, eta “emakumeen mendekotasuna zein heterosexismoak ezarritako genero-arauei jarraitzen ez dieten gorputz guztien diskriminazioa eragin duten sexuaren eta generoaren esanahi hierarkizatuak” ikertzen ditu.

Erakundearen ikerketen ondorioz, honako argitalpen hauek atera ditu: “Ser mujer más allá del cuerpo” (2011), “Nuestros cuerpos a pesar del género” (2015) eta “Del miedo y el silencio al reconocimiento” (2016).

2016. urtean, Lehen Topaketa Lesbiko Feminista antolatu zuen ARTEMISarekin batera.

Asteko irratsaio bat dauka, “Cuerpos Sin-vergüenzas” izenekoa. 2015. urtean, sexu-aniztasunari lotutako eskubideei eskaini zien saio bat: <http://lacorrientenicaragua.org/derechos-de-la-diversidad-sexual-pasaran-mas-de-mil-anos/>



## **VENANCIA TALDEA – Herri Komunikazio eta Hezkuntza Feminista**

Geni Gómez

505 - 27723562 / 4971

De la Ermita de Guadalupe 1 cuadra y media al sur. Barrio Guanuca. Matagalpa

venancia9@turbonett.com

www.grupovenancia.org

Kolektibo feminista hau 1991. urtean sortu zen, emakumeei autonomia eta hazkunde pertsonala lortzen, Nikaraguako Emakumeen Mugimendu Zabala garatzen eta mugimendu horren eragina bultzatzen laguntzeko.

Herri-hezkuntza eta herri-komunikazio feministan espezializatuta dago, eta emakumeekin eta gazteekin lan egiten du hainbat eremutan:

- Prestakuntza feminista emakume, gazte eta sustatzaile komunitarioen taldeentzat.
- Indarkeriaren eta abusuen biktimak diren neska eta emakumeentzako arreta. Emakumeen aurkako Indarkeriaren Behatokia (departamendumailan). Arreta psikologikoa indarkeriaren biktimak diren LGBTI gazteentzat.
- Iparraldeko Emakumeen Sarearen (Red de Mujeres del Norte) sustapena.
- Arreta genero-sentsiboko prestakuntza psikologikako ikasleentzat.

Nerabeak haurdun ez geratzeko “De esto sí se habla” kanpaina egin zuen.

Taldearen jarduerari buruzko bideoa: <https://youtu.be/bedUywPOWCA>

## **Judith Abarca**

505 - 83504982

jdtabarca37@gmail.com

Aktibista lesbiana independente honek Mugimendu Feminista eta LGBTI gune eta jardueretan parte hartzen du.

Bere ustez, oso kezagarriak dira LGBTI kolektiboen agenda komunikatu eza zein erakunde feminista askotan dirauen lesbofobia, kolektibo feminista batzuek beren agendetan erreibindikazio lesbikoak txertatzeko ahaleginak egin badituzte ere.

## **LGBTI ERAKUNDEEN SAREAK**

### **NIKARAGUAKO LGBTI MAHAI NAZIONALA (mesanacionalglti@gmail.com)**

LGBTI erakundeen artikulazioa, Garapen Jasangarriaren Sareak (RDS) koordinatua (gaur egun 18 taldek parte hartzen dute):

- Mendebaldean: ASOTRACHI-Asociación de Transgéneros, Chinandega; ADISNIC-Asociación de Diversidad Sexual, Chichigalpa; CODISEX-Colectivo de Diversidad Sexual, León; Colectiva Casa de los Colores, León; Diversidad Sexual Nangrandana, Nagorte.

- Managuan: MOJUDS-Movimiento Juvenil de la Diversidad Sexual, Ciudad Sandino; MOVFEMD-Movimiento Feminista Por la Diversidad; RDS-Red de Desarrollo Sostenible; AMTC-Asociación de Mujeres Trans y Culturales; Nikaraguako Trans Sarea; UNE-Una Nueva Esperanza; MTG-Movimiento Trans y Gay; Transdeseo Kolektibo Feminista.



- Ekialdea: Metamorfosis Kluba.

- Iparraldea: Ideas por una Cultura de Paz Taldea, Matagalpa; DEIGEORSEX-Movimiento por los Derechos por la Identidad de Género y Orientación Sexual, Estelí.

- Karibeko eskualde autonomoak: MDS-Movimiento Alexis Montiel Alfaro, RAAS; AMODISEC-Movimiento de Diversidad Sexual Costeña, RAAN.

Mahai hori arduratzen da ekainaren 28ko martxako diskurtsoa lantzeaz. Mahaia osatzen duten erakundeek ia % 80k 5 urte baino gutxiago dituzte.

Kritikoez diotenez, “LGTT mugimendu nagusi gisa agertzen da publikoki, baina talde gehiago daude Mahaitik kanpo Mahai barruan baino”. Eta egia diote, 2016. urtean 52 LGBTI erakunde baitzeuden Nikaraguan. Bestalde, Mahaia osatzen zuten talde batzuek utzi egin zuten Norvegiak 2014-2015ean finantzatutako proiektua amaitu zenean.

---

## **JUSTIZIAREN ESKURAGARRITASUNERAKO MAHAI NAZIONALA**

19 LGBTI taldez osatutako gune plural bat da, eta bere lehentasun nagusia LGBTI kolektiboek justiziaren eskuragarritasuna erraztea da. Horretarako, klinika juridikoen sorkuntza bultzatu du, pertsona horiek lan-arloko gaietan eta zuzenbide zibil eta penalean lege-aholkularitza jaso dezaten.

Mahaiaren sustatzailea den Garapen Jasangarriaren Sareak dioenez, “gaur egun Nikaraguan dagoen sare bakarra da”, eta, Mahaiaren lorpenen artean, honako hauek aipatzen ditu:

- Ertabaidan “gorroto-krimen” kontzeptua eta haren tipifikazioaren eskaria txertatzea (oraindik ez dago esplizituki jasota Zigor Kodean).
- Eraiketak agerian uzten lagunduko duen salaketa-sistema bakarra sustatzea.
- Hainbat unibertsitatetako langela juridikoetan LGBTI komunitateari laguntzeko klinika juridikoak instalatzea.
- Genero Identitateari buruzko Legea lantzea lehentasuna dela adostea (Mahaian dauden 6 erakundek Genero Identitateari buruzko Legearen talde sustatzailea eratu dute).

---

## **TRANSMEN NICARAGUA**

Trans gizon gazteak biltzen dituen sare birtual bat da, eta bistaratzea du helburu.

Tyler Alexander Moreno Díaz (koordinatzailea 2013. Urteaz geroztik).

<https://www.facebook.com/Transmen-Nicaragua>



## ERDIALDEKO AMERIKAKO LGBTI ERAKUNDEEN SAREAK

### RDIVERSA SAREA – ERDIALDEKO AMERIKAKO SEXU-ANIZTASUNAREN SAREA



<https://youtu.be/tpJl4QP1enw>

<https://centroamericadiferente.wordpress.com/>

Sare honek Guatemala, Honduras, El Salvador eta Nikaraguako 20 erakunde baino gehiago bildu izan ditu, eta Europar Batasunak finantzatutako eta Italiako Terra Nuova eta Arcigay GKEen, Guatemalako LAMBDA erakundearen, Nikaraguako

CEPRESI erakundearen, Hondurasko Kukulcan elkartearen eta El Salvadorko Entre Amigos taldearen artean egikaritutako “CENTROAMERICA DIFERENTE” (“Erdialdeko Amerika desberdina”) proiektuaren emaitza gisa sortu zen.

Proiektuak ia milioi eta erdi euroko aurrekontua izan zuen bi urtean (2014-2016), eta LGBTI pertsonen giza eskubideen errespetua hobetzea eta LGBTI pertsonen indarkeriaren eta eskubide-urraketaren aurrean egin beharreko informazio, salaketa eta defentsaren eskaintza areagotzea izan zuen helburu. Proiektuak Giza Eskubideen Eskualde Behatokia eta LGBTI Kolektiboaren Giza Eskubideei buruzko Diplomatura jarri zituen abian, eta prestakuntzari, bulling homofobikoaren salaketari eta intzidentzia politikoari lotutako hainbat jarduera egin zituen. Gaur egun, sareak ez du baliabiderik, eta aldizka baino ez da biltzen. Presidentzia Hondurasko Kukulcan elkartearen esku dago.

### GIB-A DUTEN PERTSONEN ERDIALDEKO AMERIKAKO SAREA (REDCA+)



GIBa duten pertsonen osatutako eta Belize, Costa Rica, El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua eta Panaman GIBa duten pertsonen eta pertsonentzako erakundeek babestutako eskualde-egitura bat da. 2001. urtean sortu zen, antirretrobiral bidezko tratamendurako eskubide unibertsala eta GIBarekin bizi diren herritarrek jasandako estigma eta diskriminazioaren murrizketa sustatzeko. Herrialdean, eskualdean eta nazioartean, GIBari eskualde-mailako erantzuna ematen laguntzen duten eta Erdialdeko Amerikan GIBa duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzera bideratuta dauden prozesu politikoan, defentsa publikoaren eta estrategien bitartez GIBa duten pertsonen ongizatea eta duintasuna sustatzen duen egituratzat hartzen da.

2007. urtean, REDCA+ sareak Erdialdeko Amerikako Osasun Ministroen Batzordearen (COMISCA) eta Gizarteratze Kontseiluaren (CISCA) berme politikoa jaso zuen. 2008. urtetik orain arte, Hiesaren, Tuberkulosiaren eta Malariaen aurkako borrokarako Munduko Fuentsaren diru-laguntza jaso du. 2012. urtean, GIBa duten pertsonen ahalmen teknikoak sendotzeko Eskualde Programa sortu zuen. Programak Munduko Fuentsaren diru-laguntza jaso zuen, eta Erdialdeko Amerikako Gizarteratze Idazkaritzak (SISCA) egikaritu eta administratu zuen.

REDCA+ sarearen egitura honela osatuta dago: alde batetik, Eskualde Idazkaritza dago, gaur egun El Salvadorko Otoniel Ramírezek zuzentzen duena eta herrialde bakoitzeko puntu fokal nazional izeneko 3 ordezkari osatzen dutena, eta, bestetik, Aholkularitza Taldea, herrialde bakoitzeko puntu fokal edo eskualde-idazkari izan den ordezkari batez osatua. ([www.redca.org](http://www.redca.org))

### GIB-A DUTEN TRANS PERTSONEN ERDIALDEKO AMERIKAKO SAREA (REDCATRANS+)

Sare hau 2014. urtean sortu zen, 2013ko azaroan San Salvadorren egindako GIBa duten Pertsonen Erdialdeko Amerikako 7. Topaketan parte hartu zuten trans emakumeek egindako deialdiaren ondorioz.

Sare gisa antolatzeko arrazoiak honako hauek izan ziren:

- Erdialdeko Amerikan GIBa duten emakumeak ia ez dira kontuan hartzen GIBa duten pertsonen arreta integralari lotutako eskualde-proposamenetan.

- GIBa duten Erdialdeko Amerikako trans emakumeak oso neurri txikian hartzen dira kontuan GIBa duten pertsonen gune sozial eta politikoetan.

- LGBTI komunitateen eskualde-sareek ez dituzte ordezkatzen GIBa duten Erdialdeko Amerikako trans emakumeak, eta sare horien ekintzak eta proposamenak ez dira trans emakumeengana zabaltzen.

Garai hartan planteatutako gomendioak sarearen lan-agenda bihurtu ziren:

- Erdialdeko Amerikako herrialdeetan GIBa duten trans emakumeak antolatzeko prozesuak hastea eta GIBa duten Trans Emakumeen Erdialdeko Amerikako Sarea osatzea, GIBa duten pertsonen berrespen- eta erreibindikazio-prozesuen barruan.

- Trans emakumeen prestakuntza teknikoak kontuan hartzea, ahalduntzeari eta autoonarpeneri begira.

- Eskualdeko sexu-osasuneko programetan GIBa duten trans emakumeen osasun-arreta espezializatua txertatzea.

- Trans emakumeek Erdialdeko Amerikako herrialdeetan Genero Identitateari buruzko Lege bat lortzeko egindako ekimena sendotzea.

- GIBa duten Pertsonen Erdialdeko Amerikako Sarearen (RedCa+) egituraren komunikazio-kanalak sendotzea eta GIBa duten trans emakumeen ordezgarritasuna sustatzea.

- RedCa+ eskualde-proiektuaren barruan egiten diren jardueretan trans emakumeen ehuneko bat bermatzea.

- RedCa+ proiektuaren agendetan eta ekintza-proposamenetan, GIBa duten Trans Emakumeen Erdialdeko Amerikako Sarea osatzeko aholkularitza teknikoak eta finantzarioak kontuan hartzea.

- RedCa+ eskualde-proiektuaren barruan berdinaren arteko arreta-programak egikaritzeko erabiltzen diren tresnetan trans identitatea kontuan hartuko duen hizkuntza erabiltzea.

- GIBa duten trans pertsonen Erdialdeko Amerikako mugimenduak preso dauden eta GIBa duten trans emakumeak eta sexu-lanean dihardutenak biltzen dituela berrestea.

---

## **RECATH – TRANS GIZONEN ERDIALDEKO AMERIKAKO SAREA**

Sarea 2015eko azaroan sortu zen, Guatemalan egindako trans gizonen lehen eskualde-topaketaren ondoren. Osatzen dutenak honako hauek dira:

- TRANS-FORMACIÓN kolektiboa (Guatemala)

- Generación Hombres Trans - HT503 (El Salvador)

- Hombres Trans de Honduras (colectivo.hy@yahoo.com)

- TRANSMEN (Nikaragua)

- Hombres trans de Costa Rica: (hombrestranscostarica@gmail.com; Silvio Alar: silvio.alarhtcr2@gmail.com)

- Chicos Trans de Panamá (chicostranspanama@gmail.com)

---

## **KONTINENTE TOPAKETAK:**

**“VENIR AL SUR” izeneko topaketa LesbitransInter-Feministak:** lehen topaketa 2012an egin zen Paraguaian, eta bigarrena, berriz, 2015ean, Costa Rican (<https://veniralsur.org/>)

**Latinoamerikako eta Karibeko Topaketa Lesbiko Feministak** (<http://elflaccuate.blogspot.com/>)

**Erdialdeko Amerikako eta Dominikar Errepublikako Elkartruke Lesbikoa:** eskualdeko eztabaidagune politiko lesbikoa (<http://intercambiolesbico.blogspot.com/>)